

# Komunitate baten herrigintza. Anoetaren bilakaera gizarte tradizionaletik industrialera XX. mendean

MIKEL ERRAZKIN AGIRREZABALA



## 0. Sarrera

XX. mendean, Euskal Herria bizimodu herritarretik bizimodu hiritarrera lehenik eta bizimodu globalizatzaileera ondoren igaro da. Honek gizarte moldeetan aldaketa nabariak bultzatu ditu: erlijioetik zientziara, landa guneetatik ingurune urbanora, nekazaritza ekonomiatik industria-ekonomiara. Honela, kultura tradizionalak bilakaera bat izan du. Bilakaera hau eragin duten faktore nagusiak Euskal Herriko hego mendebaldean populazioaren hazkundera eta industrializazioa izan dira. Anoeta bilakaera horren isla da.

Anoeta Gipuzkoako Tolosaldea eskualdean kokatua dagoen udalerririk txiki bat da, 4.1 km<sup>2</sup> eta 1777 biztanlekoa. Oria ibaiaren ezkerrean, 74 metroko altueran lekutzen da, Ernio mendiaren magalean. Donostiatik 22 km eta Tolosatik 2 km-tara dago, N I-ren ertzean.

Anoetan, XX. mende erdialdean gauzatutako industrializazioak biztanleriaren hazkunde handia bultzatu zuen, 20 urtetan biztanleria laukoiztuz; egun, anoetarren erdia barne-migratzailea da. Horrek herri-tarren arteko harreman sareetan aldaketa handiak eragin ditu; harreman sare berrien beharra ikusi da, herria lo toki huts bilaka ez zedin. Ondoko lerrook Anoetako Udalak 1979tik, eta bereziki 1999tik, harreman sare horiek sortzeko bidean egin dituen gogoeta eta urratsen azalpen dira. Inguruko herrietatik batik bat, etorritako herritar «berri» eta «gazteak» Anoeta lo toki hustzat har ez zezaten, «auzolan kulturala» oinarritzat hartu zen.

Auzolana komunitatearen garapenerako burutzen den elkarlan antolatua da; auzoko bizitza orokorrean auzokoek dituzten azpiegitura eta baliabideen beharrak lantzeko elkarrekikotasunean burututako ohitura-zko lana. Anoetaren kasuan, kontzeptu kolektibo hori herriaren kultur garapenari begira burutu da, auzolanaren gaurkotutako kontzeptua da beraz. Bereziki, herriko eragile eta gizabanako ezberdinean artean dinamizazio lana burutu da, prozesu honetan subjektu gisa jardun zezaten. Hitz batean, «auzolan kulturalarekin» herritarrek herrian beren buruak definitzeko helduleku sinboliko eta identitarioak sortzeko saiakuntza egin da, esperientzia kultural batetatik abiatuz harreman sare berrituen erakin sinbolikoak kokatzeko.

Ondoko lerroetan, «auzolan kultural» horren azalpena hiru zati nagusitan dago banatua. Lehenean herritar «berri» eta «gazte» horien arteko harreman sareak sortzeko bidean kultur espazio berrien beharra zerk eragin duen aztertzen da. Bigarreanean, kultur espazio horien ideia nagusiak zehazten dira; eta azkenik, hirugarreanean, kultur espazio berri horien kultur adierazpenak nola gauzatu diren, kasu praktikoak alegia.

Lehen atalean aipatzen den bezala hainbat faktorek bultzatu dute «auzolan kulturala» abiaraztea. Lehenik eta behin, Anoetaren kokapenari dagokionez, Tolosaldeako ingurune fisikoak eskualdeko herritarren des-artikulazioa bultzatu du; baita Tolosaren zentralismoak ere. Honela, Tolosarekiko atxikimendu handiak nabarmen eragin du Anoetaren historia. Bestetik, aitzinean aipatu biztanleriaren hazkunde handiak eta herritarrek nekazal ekonomiatik industrialera igarotzeak bizimodu tradizionala utzi eta bizimodu hiritarrerako pausua bilakarazi du. Azpimarratu beharreko beste faktorea homogeneotasun kulturalarena da, herri-kultur sorkuntzan eragin betea duen gizarte molde hori azken hamarkadetan globalizazio-

ak bultzatua da. Bestetik, Anoetan komunitateak izan duen garrantzia historikoa: herriaren sorrera prozesuan edo lur eta lan antolamenduan. Honela, tirabira historikoak gaindituaz duela gutxi arte mantendu dira auzolana bezalako balore komunitarioak. Honela, balore kolektibo hauen galera present edukitzeko beste faktoreetako bat izan da.

Bigarren atalean, auzolan kulturalak lortu nahi izan dituen ideiak azalduko dira. Prozesu honen printzipio nagusiak herri identitate kontzeptuaren sendotzea, komunitate baloreen berreskurapena eta parte hartze demokraziaren zabalpena izan dira. Horretarako, dinamika honen abiapuntua euskararen gizarte normalizazioa izan da; hizkuntza, azken batean, kodigo batez haratago, komunitatearen memoria kolektiboa baita, urteen joan etorrian anoetarrek komunitatearen adierazle gisa gorde eta transmititu duten herriaren identitate ikurra.

Eta azkenik, hirugarren atalean, aurreko lerroetan laburbildutako prozesuan gauzatutako hainbat esperientzia azalduko dira. Batetik, errepresentazio era ezberdinak batuaz, kultur sorkuntzen adibideak eta bestetik herri-identitatea lantzeko buruturiko esperientziak.

## 1. Kultur espazio berrien beharra

Anoetan, kultur espazio berriak lantzeko beharra hainbat faktorek bultzatu dute. Kokapenari dagokionean, Tolosaldearen ezaugarri geografiko eta historikoez garrantzia handia izan dute Anoetaren historian, batik bat Tolosaren ondoan kokatua egoteak.

### 1.1. Tolosaldea

Tolosaldea Gipuzkoan kokaturik dago, ekialde-erdialdean, Nafarroarekin muga eginez. Eskualde honetako historia bere kokapen estrategikoarekin lotuta dago;<sup>1</sup> Nafarroa-Aragoi eta Gaztela, eta Frantzia eta Espainiaren arteko bidegurutzean kokatua baitzegoen eskualdea. Tolosa Donostiako portua barrualdeko lurraldeekin lotuta gelditzeko helburuarekin sortu zuen 1256an Alfontso Xak.<sup>2</sup> Hiria sortzeko beste arrazoi nagusia muga ondoan egotea izan zen, kokapen horrek herritarrei zekarkien arriskuaren aurrean segurtasuna bermatzeko eta arrazoi ekonomikoak alegia.

1. Barrera, Elena: *Gipuzkoako komunikabideen historia. Aintzinaroa eta ertaroa*, Gipuzkoako Foru Aldundia. 1991.

2. Arizaga, Beatriz: *Urbanística medieval (Guipúzcoa)*. Kriselu. 1990.

Eskualde hau berezia da orografia aldetik, ezberdintasun handiak eskaintzen dituelako. Bertatik Oria ibaia eta bere ibaiadarrak pasatzen dira, bere aldamenetara bailara handi bat utziz. Eskualdearen berezitasun hauek direla medio eta faktore sozio-ekonomiko eta kulturalak kontuan izanik, aise uler dezakegu Tolosaldeko biztanleak 28 herritan bizitzearen arrazoa.

Tolosaldeak, bere 28 herrietan, 44.996 biztanle ditu, Gipuzkoako biztanleriaren %6,7. Tolosaldeko eskualdea osatzen duten herri gehienek 1000 biztanle baino gutxiago dituzte, hau 20 herritan ematen da. Tolosa da 10.000 biztanle baino gehiago dituen herri bakarra. Ondorioz bizi-modua ia erabat nekazal girokoa dela esan dezakegu; gainera, herri txiki hauetan biztanleria auzoetan banatua dago. Tolosaldean honelako 150 gune inguru aurki ditzakegu, ondorioz biztanleria nahiko sakabanatua aurkitzen da. Nahiz eta jarduera ekonomiko nagusia industrialak izan, nekazal giroa nabaria da.

Sakabanaketa honek Tolosaldeako herrien artikulazio eza bultzatu du. Tolosaldeko herrietako biztanleen artean ez dago harreman-sare handirik. Beste ezaugarri nagusia Tolosaren zentralismoa da. Tolosaldeko herritarrek joera handia izan dute Tolosara bideratzeko euren jarduerak. Alde batetik, Tolosak garrantzi handia izan du betidanik azoka eta merkatu jarduerarekin; Euskal Herriko herri garrantzitsuenetarikoa da arlo honetan, bertako azokak 1354 urtean hasi eta gaur arte bizirik dihardu. Gainera, gaur egun, Tolosak biltzen du eskualdeko jarduera komertzial handiena. Bestetik, kultur ekintza eta eskaintzetan parte hartzeko Tolosara joateko joera handia izan da, herri txikien harreman-sareen kalterako.

## *1.2. Tolosari atxikitako historia*

Anoeta herriak, Tolosarekiko hurbiltasunagatik, 2 km, hiribildu honen eragin handia bizi izan du historian zehar. Eragin hau areagotu egin da azken urteotan eta ondorioak gune txiki zena handitzea ekarri du. Anoetako herriguneari buruzko lehen aipamen dokumentatua Tolosako hiribilduari erantsi zitzaioneko eskrituran<sup>3</sup> agertzen dira, 1374. urtean; hori onuragarria zitzaiolakoan gauzatu zen, nahiz eta mugarritaturiko esparruan burujabe izaten segi unibertsitate tituluz. Azken batean,

3. Gorosábel, Pablo: *Diccionario Histórico-Geográfico-Descriptivo de los pueblos, valles, partidos, alcaldía y uniones de Guipúzcoa-1862*. La Gran Enciclopedia Vascares argitalpena.

Tolosari batu, alkate tolosarraren agintetzara meneratu eta herri lurren gastuak ordaintzera behartua izan zen.

Tolosarekin auzokotutako beste hainbat parrokiarekin batera, ekonomia arazoengatik Valladolideko Erret auzitegi Gorenaren aurrean auzitan egin zuen, eta arazoari 1450ean izenpeturiko itun batekin irtenbidea eman zitzaion.<sup>4</sup> Anoetak, 1615ean, gaur egun duen hiribildu<sup>5</sup> burujabearen titulua eskuratu zuen, 11.443 errealetako emaitza ordaindu ostean. Harrezkero, bere burua gobernatzan hasi zen eta bazituen alkate arrunta, eskribau osoa eta eserleku propioa Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Berezietan. Burujabetza lortu zuelarik, Probintziako Biltzarretan bere lekua bete zuen, baina hari eustea hain garestia zenez gero, 1742an Alkizarekin batera Ainsuko Batura sortu zuen. 1815ean, Hernialde uztartu zitzaizen eta Ainsuberreluz izen berria hartu zuen.

### *1.3. Biztanleriaren hazkunde handia*

Anoetaren bilakaera historikoa Hego Euskal Herriaren eboluzioaren metafora gisa hartu daiteke: industrializazioak erabat eragindako nekazal udalerrri txikiarena alegia. XX. mende hasieran biztanleriaren hazkunde progresiboa izan zuen. Honen arrazoiak, batik bat, trenbidea eta herrian sortutako industria txikiak izan ziren. 1864ean eraikitako Madrid-Irun trenbideak Anoeta zeharkatzen baitzuen; gerora 40eko hamarkadan Anoetak bere geralekua lortu zuen. Industria txiki horiek galdarategi eta fundizio enpresak ziren. Gauzak honela 1950ean Anoetak zuen populazioa mende hasierakoa baino %25 handiagoa zen. 60n hamarkadan industrializazio garapenak etxebizitzaren eraikuntza booma (San Jose Obrero auzoa eraikitzean batik bat) bultzatu ostean, hogeitertan Anoetako biztanleria laukoiztu egin zen. 90eko hamarkadan, Hego Euskal Herriko joerarekin bat eginez, batik bat langabeziak eta familia baloreen aldaketek hala eraginda, Anoetarren populazioak behera egin zuen. 2000. urtetik hona, herrian eraiki diren etxebizitzak berriek eta inguruko herrietako etxebizitzaren prezio altuagoak eraginda, populazioak igoera txiki bat izan du.

---

4. *Colección Diplomática del archivo municipal de Tolosa. Tomo II (1420-1499)*. Fuentes documentales medievales del País Vasco.-Eusko Ikaskuntza.

5. *Hiribildu*: Herriek hartzen duten maila juridiko-politikoa. Herri berezitu bezala erabateko eskumen eta eskubideak dituena. Hiritar moduan bildu eta erabakiak hartzen dituztela adierazten du, inguruko jauntxoekin mendetasunekin aske. *Villa*.



Egungo Anoetako biztanleriari dagokionean bi datu azpimarratu daitezke. Alde batetik, bertan bizi diren herritarren artean dagoen barne-migratzaile kopurua handia, inguruko herritatik Anoetara etorritakoena alegia; eta bestetik, 0-19 urte arteko herritar gazteen indize altua.

*Biztanleria, jatorriaren arabera<sup>6</sup>*

ANOKIA	Gaztea	Biztanleriak	Biztanleriak	Biztanleriak
Gipuzkoa	676.208	%52,29	%27,16	%20,55
Trentxuarrok	44.285	%54,47	%35,46	%10,07
Anoeta	1.776	%40,60	%51,69	%7,71

*Biztanleriaren egitura, adinaren arabera<sup>7</sup>*

ANOKIA	Gaztea	Biztanleriak	0-19 urte		20-64 urte		65 urte	
			Gaztea	%	Gaztea	%	Gaztea	%
Gipuzkoa	676.208	341,3	139.147	%20,58	432.626	%63,95	104.435	%15,46
Trentxuarrok	44.285	133,3	9.338	%21,06	28.655	%64,55	6.292	%15,39
Anoeta	1.776	76,1	494	%27,86	1.123	%63,43	157	%8,80

6. 1996ko erroldako datuak. [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

7. 1996ko erroldako datuak. [www.eustat.es](http://www.eustat.es)

Esan bezala, oso azpimarragarria da Anoetan bizi diren herritarren artean dagoen barne-migrazio indize altua (%51.69). Herritarren erdia baino gehiago barne-migratzaile izatearen zergatia; 1960tik 90ra Anoetan izandako boom inmobiliarioan koka genezake. Honek inguruko herritako hainbat biztanleen migrazioa bultzatu zuen, batik bat pisu merkeagoen bila zetorren jendearena. Etorkinen kopurua gaur egun handia ez bada ere, herritarren %7.71, aipatutako hiru hamarkadetan kopuru hau altuagoa zen. 90eko hamarkadako industri krisiak eraginda, hainbat etorkin bere jaioterrira itzuli baitzen.

Beste datu esanguratsua 0-19 urte arteko herritarren indize altua da: 1996ko erroldaren arabera, %25.56. Datu honen arrazoia ere azken hamarkadetan emandako biztanleriaren igoeran datza. Hamarkada hauetan Anoetara bizitzera etorri ziren biztanleen seme-alabak baitira nagusiki herritar hauek. Ikus daitekeen bezala, Anoeta nahiko herri berria eta gaztea da. Bi datu hauek, gerora aztertuko den bezala, kultur espazioak sortzeko bideak kontuan hartzeko konstanteak dira.

#### *1.4. Nekazal ekonomiatik industrialerako pausoa*

50. hamarkada, arte nekazaritza zen Anoetako ekonomia jarduera nagusia. Anoetarrak laborantza<sup>8</sup> (15 Ha.), abeltzaintza (201 ganadu buru, 4 txerri, 9 zaldi, 48 asto) eta baso ustiapenez (223 Ha.) bizi ziren; batik bat artoa, barazki eta lekale produkzioaz. Hiru nekazal auzotan banatzen ziren Anoetako 30 baserriak: Goibailara, Elbarrena eta Ergoiena. Industria jarduera oso txikia zen, Alkiza erreka ibaian kokatua zegoen elektrizitate indarraren sorgailu zen zentrala (496.620 KW/H), eta enpresa txiki gutxi batzuetara mugatzen zen.

Gaur egun, lehen sektoreak ia garrantzirik ez badu ere (baserriko ustiapen soiletik bizi diren baserriak 5 bakarrik dira), aipagarria da Anoetako lurren ia erdia erabilpena duen nekazal gainazala dela. Honek zera erakusten du, baserrietan bizi den hainbat herritarrek bizimodu mistoa dutela, baserriaren ekonomia sostengu bezala nekazaritza eta industria konbinatzen dutelarik.

Egun, Anoetako ekonomia jarduera nagusia bigarren sektorekoa da. Tolosarekiko gertutasunak eta komunikazio onak edukitzeak (Madril eta Paris elkartzan dituen N-I autobidea gertu dago) jarduera industrial

---

8. 1950eko datuak.

bultzatu du, batik bat galdaragintza, industria elektrizitate eta makina-gintzara. Anoeta eta Tolosaldeako enpresak postindustrializazio fasean daude. Behin industri krisia gaindituta industri sektoreen eraldakuntzan, hirugarren sektoreak industriarekin konpartitzen du bere esparrua. Eskualde ikuspegi duten autoen kontzesionario eta tailerrek garrantzi handia dute.

Lan-sektorearen arabera Anoetako biztanleria ondoko moduan dago sailkatua:<sup>9</sup> herritar gehienek, %46.5k, zerbitzuetan egiten dute lan; ondoren, industria (%41.46) eta eraikuntzan (%9.31); eta azkenik, nekazaritzan (%2.54). Gipuzkoako datuekin alderatuz gero, industrian dihardutenen portzentajea handia da. Konparaketa Tolosaldeko datuekin eginez gero, datuak antzekoak dira.

*Biztanleria, lan-sektorearen arabera*

	Gutxi	Nekazaritza	Industria	Enkuntza	Zerbitzua
EAE	689.100	%2,47	%31,84	%8,99	%56,70
Gipuzkoa	233.028	%2,36	%34,18	%7,03	%56,26
Tolosaldea	15.427	%3,82	%38,02	%9,43	%48,73
Anoeta	991	%2,94	%41,46	%8,31	%46,30

### *1.5. Bizimodu tradizionaletik hiritarrerako bilakaera*

Aitzinean azaldu den bezala, Anoeta herri berria da. Alde batetik, XX. mende erdialdean laukoiztu egin zen biztanleria; industrializazioak eta boom inmobiliarioak eraginda, Espainiatik lan bila eta batik bat inguruko herrietatik pisu bila hainbat herritar berri etorri ziren. Bestetik, nekazal giroko Anoeta industria giroko herri izatera pasa zen. Beraz, 60 eta 70eko hamarkadetan, herria zeharo aldatu zen. Ondorioz, herritarren harreman-sareak ere asko aldatu ziren.

Herri eta baserrietako emigrazio prozesuak, azken batean bizimodu tradizionaletik hirigunetarakoak, Euskal Herrian oso konstanteak izan dira XX. mendean eta Anoeta fenomeno horren metaforatzat har genezake. Batik bat 50 eta 60. hamarkadetan anoetarrek beren pausoak kaleko paradisu berrien bila zuzendu zituzten: soldatapeko eta ziurtasuneko lana, kaleko erosotasuna, jendeak eskuak lurrez zikintzen ez zituen le-

9. [www.eustat.es](http://www.eustat.es)



kua, aitzurraren trebetasuna berrikuntza teknologikoaren truke aldatzea, ordenagailua, norberaren autoak...; dena ongizatearen adierazgarri, estatus sozial baten eskuratzea, eta baita boterearena ere. Jakina, honek salneurri bat izan zuen, erauzketa moduan ordaintzen dena, masifikazio moduan eta, halaber, akulturazioan. Aldaketa honetan, mikrokosmos pertsonalak sortzen hasi ziren, lehenagoko makrokosmos kolektiboen erorpene ekarriz. Kepa Fdez. de Larrinoak<sup>10</sup> zera aipatzen du:

*«El éxodo rural, la industrialización, el desarrollo de los medios de comunicación y la escolarización fueron fenómenos sociales que caracterizaron la vida en Europa durante los años cincuenta y sesenta del siglo xx. Ciertamente, emigración y modernización introdujeron marcos culturales nuevos en las zonas rurales europeas, lo que trajo consigo el debilitamiento de la costumbre y el declive de las celebraciones rituales».*

Bizimodu zibilizatuarentzat dena ez zen zoriona, bere barruan giza oinarriaren banaketa eragiten duen krisia gertatu baitzen. Balio berriak bide ekonomikoetatik eskuratuak izan behar zuten, berarekiko konsustantzialak zirelako. Gainera, 80 hamarkadan herriak nozitutako langabeziak biztanleen sektore garrantzitsu baten sarbidea moztu zuen, arazo sozial handiak eragin zituela. Aipagarriak dira hamarkada honetan bereziki gazteen artean hedatutako drogamenpekotasun arazo larriak

XX. mende hasieran bizimodu tradizionalako gizarte espazioak lurra, familia, auzoa edo praktika erlijiosoak baziren protagonista, balio aldaketa eman zen. Bizitza kalitatea, jolas eta aisia edo garapen pertsonalak hartu zuen garrantzia. Bizitza kalitatea hobetzeak ekarri zuen aisialdiaren gorakada. Eta kontsumorako joera duen aisiak kultur produkzioa baldintzatu du, kultur eskaintza asko aisialdia betetzeko bideratuz. Quijerek<sup>11</sup> dioen bezala XX. mendeko bizimodu aldaketak kultura tradizionalaren krisia eragin du. XX mendean bizimodu herritarretik bizimodu globalizatzaileko pausua eman da Anoetan eta Euskal Herrian.


Honek guztiak iraganean pentsarazi eta herriminez gogoraztea bultzatu du, balore tradizionalak berreskuratzea. Joxe Mari Sarasolaren hitzetan «lehen herri txikietako ambientea zegoen, herri guztiak elkar ezagutzen

---

10. Fdez. de Larrinoa, Kepa. El puzzle del patrimonio in Sabor de antaño: notas sobre identidad local, actualización etnográfica y desarrollo cultural.-UPV-EHU.

11. Quijera, Jose Antonio. Folklore ikerketaren etorkizuna: erronkak eta beharrak.-XV Congreso de estudios Vascos: Euskal zientzia eta cultura, eta sare telematikoak.-Eusko Ikaskuntza.

### Kultura tradizionalaren krisiaren bilakaera xx. mendean



zuen, herriko guztiek herriko guztiekin hitz egiten zuten... azken batean koadrila bat bezala zen». Giro tradizionalako herri txikia eta harreman sare txikikoa izanik jendea behartuta zegoen elkar lagundu edota bizitza soziala gauzatzen; nahiz eta ika-mika ugari izan herritarren artean

#### 1.6. Harreman-sare berrituen beharra

Bizimodu eta kultura tradizionalaren bilakaera zela-eta, herritar berriei zuzendutako harreman sare berrituak landu beharra ikusten zen. Herri-historia, identitate-sinboloak eta festa-ospakizunekin komunitate sentimenduak landu nahi izan ziren, jai ospakizun eta identitate sozio-kulturalen erlazio moduak erakutsiz. Horretarako, azken urte hauetan prozesu sinboliko bat eratu da, komunitate garapen programa; Anoetako bezalako komunitate berriko identitate ikurrak berregituratzeko, honela, herritar eta komunitate bateko kide izatearen sentimendua zabaltzea da helburua.

Kultur espazioaren garapenean herriaren sustrai historikoa da beste konstanteetako bat. Egungo gizakiak sustraiak behar ditu, ezin du hautsi milaka urtetako joera kulturalarekin, eta horren ondorioz jatorria bilatzen du. Halaber, bilaketa horretan aurkitzen duena ez da aurretik galdu zuena zehazki, bere beharrak neurri txiki batean asetzeko ordezkoa baizik, eta gainera, barne oreka lortzeko artifizialki sorturikoa. Eta anoetarren sustraiak berreskuratze bidean folkloreak bidea erabili da, dantza-sokaren kasuan adibidez, tradizioak egungo testuingurura egokituaz. Mikel Aranbururen<sup>12</sup> hitzetan:

*«en la actualidad, la razón más aducida para la intervención en folclore es la de preservar la identidad colectiva... Baste con recordar que el patrimonio ideacional requiere para su consolidación del consenso social. Aunque identidad colectiva no es equivalente a patrimonio cultural, éste transmite la idea de la esencia pura de la*

12. Aramburu, Mikel: *La gestión del Folclore. Diez consideraciones desde un enfoque teórico*. «XV Congreso de estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak». Eusko Ikaskuntza.

*colectividad y adquiere el carácter simbólico que le hace acreedor del papel representativo de la identidad grupal».*

Harreman-sare berrien lanketa ondoko gogoeta eta pausuak emanez burutu zen: 1975ean Franco hil eta gero, 1979an lehen hauteskunde demokratikoak burutu ziren. Legegintzaldi honetan, Andoni Argoitia-ren<sup>13</sup> esanetan «Anoetak potentzial handia zuen, baina dena egiteko zegoen. Herriak defizita denean zeukan, bai estolderiak, argiak, bideak, urbanismoa...». Urte hauetan «herri guztiko urbanismoa aldatu eta erre-daktatu zen. Nolabait esateko, gaur egungo Anoeta diseinatu zen. Hori guztia plan orokor batean egin zen. Garai hartan, lau auzotan zegoen banatuta herria: San Juan, San Jose, Errotaldea eta Idiakaitz ziren lau gunek, eta oso banatuta zeuden bata bestetik. Plan horren helburua lau zatiak lotzea zen».<sup>14</sup>

Biztanle kopurua asko igo zen denbora laburrean, eta, horrek, pueblo dormitorio delakoan bilakatu zuen, lo toki huts; gainera, eskualdean hedatua dagoen/zegoen Tolosara joateko joera Anoetan oso nabarmena zen. Horri guztiari erantzun nahirik, herriko zerbitzuak handiagotu egin ziren; eta, honela, arazo hori ekidin nahi izan zen. Martxan jarri ziren zerbitzuak ugariak izan ziren, liburutegia, buztina, dantza, musika eskolak, osasun zentroa...

«Urte haietan, herriari identitatea ematea zen helburua. Anoetara bizitzera etorri ziren pertsona horiek herrian bertan geratzea lortu nahi genuen, inolaz ez jan, lo eta martxa egin. Aurretik herriari harriak ezarri zitzaizkionez, herria jantzi egin nahi genuen».<sup>15</sup>

Gerora, zerbitzu eta kultur adierazpen ezberdinak eskaintzean beste azpiegituraren eskaera handitu egin zen. Musika eskolak musika taldeak sortu zituen, eta hauek lokalak behar zituzten entseatzeko, gazteek eta adinduek euren dinamikak burutzeko gaztetxea eta jubilatuta etxea behar zituzten, kiroldegia...

«Bizitza eman zaio hasieran zegoen ormigoi pilari, eta bizitza horrek aukeran eskatu du beste infraestruturaz batzuk egin behar izatea; nolabait esateko, lo egiteko herria izatetik bizitzeko herria izatera pasa da.»<sup>16</sup>

---

13. Andoni Argoitia, Anoetako alkatea 1979-87 artean.

14. Perez, Oihane. *Anoeta 1973-2003*. Anoetako Udala.

15. Periko Peñagarikano, Anoetako alkatea (1987-91); zinegotzia (1991-95 eta 1999-03).

16. Joxe Mari Sarasola. Anoetako zinegotzia (1991-95) eta alkatea (1995-03).

1999an, Anoetako Udalak herriko hainbat eragilerekin gogoeta bat bultzatu ostean, autokritika bat burutu zuen. Bertan zera ikusten zen: inguruko herriekin alderatuz gero, kultur eskaintza handia eta adierazpen modu anitzekoa zela; alabaina, herritarrek kultur ekintzetan ez zutela parte hartzen, ekintza hauek ez zituzten bizi bereak bezala. Batez ere, kultur eskaintzak aisialdiaren hutsuneak asetzeko antolatzen ziren eta jendearen parte hartzea produkzio eta kontsumoan, hau da, kultur eskaintzen sorkuntza, antolakuntza eta parte hartzean oso eskasa zen. Egun nagusitzen ari den asebetearen kulturaren<sup>17</sup> baitan interpreta daiteke inplikazio eza hori.

Guzak horrela, kultur espazio berrien beharra identifikatu zen, herritarren arteko harreman sareak sortaraziz. Herritarrek subjektu izanik, herritarrek errepresentatuko zituen herri kulturaren adierazpen-modu ezberdinak landuaz. Laburbilduz, herrian pentsatuta egindako kultura; herrian sortutakoa eta herriarentzat egina.

### *1.7. Homogeneotasun kulturalaren aurrean, herri-identitatea lantzearen garrantzia*

Atal honetan ikusten ari garen bezala, gizarte tradizionaletik hiritarrera igarotzean, herritarren arteko harreman sareak eten egin dira, herritarren arteko kohesioa ahulduz, hau guztia, batez ere industrializazioaren ondorioz. Azken hamarkadetan, berriz, gizarte modu hiritarretik globalizatura igaro gara, ziztu bizian. Neoliberalismo eta globalizazioak homogeneotasun kulturala azeleratu dute. Hainbat analistaren iritziz globalizazioa kapitalismoaren eredurik basatiena da, hots, darwinismo soziala. Ignacio Ramoneten<sup>18</sup> hitzetan, kapitalismoaren garapena hiru faktorek bultzatu zuten: teoriko handien lanak (Adam Smith, David Ricardo...); aurrerapen teknologikoak (bapore makina, trenbidea...) eta eraldaketa geopolitikoak (Britainiar Inperioa, Alemaniaren berjaio-tza, AEBen potentzia). Honela, aurrerapen teknologikoek gizakiaren muskuluak ordezkatu zituzten. Sobietar Batasuna hondoratu eta gero, munduak aldaketa berri eta izugarri bat ezagutu du Ramoneten hitzetan: globalizazioa. Aurrerapen teknologikoak inoiz baino aldaketa handiagoak ari dira bultzatzen, ia gizakiaren garuna ordezkatzera iritsiaz. Ingurunea

---

17. Galbraith, John Kenneth. La cultura de la satisfacción. Ariel. Barcelona. 1992.

18. Ramonet, Ignacio. Pensamiento crítico Vs Pensamiento único. Destino.

aldatzen ari da:<sup>19</sup> testuinguru ekonomikoa, datu politikoak, parametro ekologikoak, balore sozialak, irizpide kulturalak edo gizabanakoaren jarrerak. Nagusiki hiru esparru nagusitan gertatzen ari dira aldaketak: esparru teknologikotan, ekonomikoan eta soziologikoetan.

«Globalizazioa organizazio eta instituzioen aldaketa da, izan ere sistema bakarreko (ekonomia, kirola, komunikabideak, gizarte mugimenduak...) osagarriak une berean eta batera funtzionatzen dute mundu mailan, harreman sareetan antolatuta; zeren erakunde txikiez osatutako sareak malgutasun eta garrantzi handiak lortzen baititu. Hemendik aurrera, sare horietatik kanpo gelditzea izango da bazterketarik handiena.»<sup>20</sup>

Autore ugari dira globalizazioaren eragin kultural ezkorrek azpimarratzen dituztenak. Hauen ustez, globalizazioak eta teknologia berrien mugarik gabeko hedakuntzak pentsamendu bakarra, homogeneousasun kulturala eta, beraz, kultura txikien desagertzea ekarriko ditu. Homogeneousasun kultural hori American way of life lemazain duela gauzatzen ari da. Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Bai Euskarari akordioaren aldeko adierazpenean zioenez «UNESCOren arabera, gaur egun munduan dauden lau mila hizkuntza baino gehiagotik, mila galduko dira datozen hogeitun urteetan».

Patxi Juaristiren hitzetan, globalizazioak euskalduna bezalako komunitate txikientzat «ondorengo alde ahulak ditu:

«globalizazioak joera bateratzaileak bultzatzen ditu, eta euskara eta euskal kultura txikiegiak direla eta, zenbait arlotan, makalegi daude errotari homogeneousitate eta oro-birrintzaile horri aurre egiteko. Batez ere, teknologia berriek hizkuntza eta kultura gutxi batzuen gain hartzen ahalbidetuko dutelako».<sup>21</sup>

Halere, bada globalizazio eramangarriak onurak ekarriko dituela dionik ere; teknologia berriak herri nortasuna babesten lagunduko dutela diotenak dira. Manuel Castellsen<sup>22</sup> ustez, globalizazio prozesuek ez dituzte identitate kolektiboak desagertuko. Aitzitik, neurri batean berrindartu egingo dituzte. Bere hitzetan globalizazioak hurbiltasunerako itzulua dakar, ezagutzen ditugun eta neurri batean kontrola ditzakegun

---

19. Ramonet, Ignacio. *Le monde diplomatique*. Edición española; 1997ko urria.

20. Martínez de Luna, Iñaki: *Euskal Herriko gizarte aldakuntzak eta etorkizuneko erronkak*, in XV Congreso de estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak. Eusko Ikaskuntza.

21. Juaristi, Patxi. *Euskal Herria globalizazioaren aurrean*. Euskaltzaindia-BBK fundazioa.

22. Castells, Manuel. *El poder de la identidad, vol 2. La era de la información*, 3 vols. Alianza.

eremuetarako itzulia, eta horrek berrindartu egiten du hurbileko taldeen (lagunak, familia...) eta tokian tokiko identitateen beharra (herri nortasuna, erlijioarekiko atxikimendua...). Hau da, kulturaren estandarizazioak tribaltasun berriak eta hurbilean dugunarekiko atxikimendu handiagoak ekarriko ditu.<sup>23</sup> Globalizazioak euskal kulturari alderdi onak eta txarrak ekar diezakizkiokela abiapuntutzat hartuta, globalizazio prozesuek sortarazten duten beldur handienetakoa identitate kolektiboen galera da.

«Globalizazio prozesuak oro har, eta komunikabideen globalizazioa zehazkiago, kulturaren aldaketa handiak eragiten ari dira (lanbide, bizimodu, mundu ikuskera, ohitura, ikur eta abar berriak) planeta mailan, kultura desberdinak eredu menperatzaile berberen mende hartzeko joera areagotuz. Euskaldunok, iparramerikarrak eta are txinarrak ere gero eta antzekoagoak gara jokatzeko moduan zein pentsatzeko moduan, ditugun bizi baldintzak zein haiei erantzuteko moduak berdintzen ari zaizkigun neurrian.»<sup>24</sup>

Beraz kultur homogeneousan gure hizkuntza, kultura eta nortasuna gordetzeko eta garatzeko trabak jar badierazkiguke ere, identitate kolektiboa da pentsamendu, kultura eta hizkuntza bakarra gailentzearen aurrean landu dezakegun konstantea. Izan ere, kultura berekoen artean identitate desberdinak izan daitezke, objektiboki desberdina den kulturaren inguruan antolatzen bada (eremu politiko berezitua, gizarteko kokapena, hurbiltasuna, errealitatearen definizio komuna eta abar).

«Eta hor, eszenatoki erdi-erdian, jokatzeko hasita dago dena uniformatzeko joeraren eta identitateen arteko lehia: horrek markatuko du gure etorkizun hurbila. Unibertsaltasuna versus partikularitasunaren aurkako borroka bat jokatzeko ari dela uste du hainbatek, baina uniformitatea versus unibertsaltasuna da jokatzeko ari dena, partikularren sintesi gisa ulertu behar baita unibertsaltasunaren kontzeptua, eta identitatearen suntsiketa moduan, uniformitatea. Geu izatea da kultura unibertsalak eskatzen diguna, geure ahots propioa, identifikagarria ozenagotzea.»<sup>25</sup>

Cesare Pavesearena geure eginez, «partikularitasuna da unibertsaltateko modu bakarra». Eta gure txikian, Anoetako kultur espazio berri

---

23 Maffesoli, M.: *El tiempo de los tribus*. Icaria.

24 Amezaga, Josu: *Globalizazioa, komunikabideak eta identitatea in Euskaldunon Egunkaria*. (2000-04-03)

25 Lertxundi, Anjel: Frankfurteko 51. Liburu Azokan irakurritako testua. Euskaldunon Egunkaria. 1999-10-17.

bat bultzatzean geu izatea da helburu nagusia, geure ahots propioa, identifikagarria ozenagotzea.

### *1.8. Komunitatearen garrantzia historikoa*

Ondoko lerrootan ikusiko den bezala, komunitateak garrantzia historiko handia izan du Anoetan: herriaren sorreran edo lur- eta lan-antolamenduan. Kultur espazio berrien sorkuntzan, komunitate balio tradizional horiek berreskuratzeko saiakuntza egin da.



Anoetako komunitateko kideak. 1942an pilotalekua auzolanean eraiki ondoren ateratako argazkia, Anoetako baserri guztietako kideak agertzen dira. (Asuribar baserrian jasotako argazkia)

#### *1.8.1. Herriaren sorrera*

Anoetan ezagutzen den komunitate antolamendurik zaharrena burdin aroko Basagaingo kastroan antolatutakoa da, duela bi mila urte baino gehiagokoa.

«Garai honetan antolamendu eta garapen maila altua suma daitekeen gune multzoa eratu zen. Eta oraingoz bilgune protourbanotzat hartu behar badugu ere, jada badira ezaugarri batzuk, gune hauek jende-bilgune huts gisa hartzea eragozten digutenak. Esparru harresituak dira, toki estrategikoetan kokatuak, eta

eraikitzeo prozesuan lan handia eskatzen dutenak. Honen guztiaren erakusgarri ditugu ongi diseinatutako babes-sistemen trazatuak, taldearen beharren arabera Basagainen kasuan 2,8 hektareako eremuan mugatzen dena. Eta, kokagunea aukeratu ondoren, mota honetako talde-lanak egiteko beharrezko diren lan guztiak koordinatzeak gizarte-garapen maila handia eskatzen badu, are nabarmenago ageri zaigu garapen hori herri hauen barnealdean.»<sup>26</sup>

Garai hauetako herrixkak muino txikietako goialdeetan estrategikoki kokatzen ziren (Basagain 295 m), ongi babestuta egotez gain, bide natural garrantzitsuen gainean egon ohi zirelarik; bertakoek lur-eremu zabalak kontrolatzen zituzten herritik bertatik. Basagaindik Buruntza eta Intxurreko espazioen kontrolak burutzen zituzten. Basagainen harresi edo babes-egitura batzuk eraiki zituzten, etxebizitzak altxatuko zituzten ingurua eta soroak eta abereentzako larreak egongo ziren eremuak babesteko. Aldi honetako biztanleen elikagai iturri nagusi nekazaritza zen, hala erakusten digute Basagainen aurkitutako hainbat piezek (errota-zirkularra, goldearen nabarra, eskuz zein tornuz egindako ale-gordailuak...) edo une horietan landutako espezien aztarnak (kiskalitako zereal-ale ugari topatu dira; esate baterako gari, garagar azaldun zein gabea, artatxikia, edo lekale espezieak) . Behiak, ardiak, ahuntzak eta txerriak ziren Historiaurreko amaierako aldi hartan zituzten espezierik ugarienak. Espezie horietakoak ziren Basagainen aurkitutako animalia-aztarnak. Hau guztirako gizarte antolakuntza ezinbestekoa zen.

Nekazaritza eta abelazkuntzan izandako eraldaketa garrantzitsuak, teknologia berrien sarrera, esate baterako burdina fabrikatzea edo kalitate handiagoko zeramika lantzea ahalbidetuko zutenena, eraikuntza-tekniketako aurrerapenak, harreman komertzialak biziagotzea... hauek guztiak ongi antolaturik eta garapen bidean erabat sartutako gizarte batzuen lekuko ditugu

Burdin Aroa eta Berant Erdi Aroaren arteko trantsizio aldi oso dokumentazio eta aztarna gutxi dago. Zera esan daiteke, erromanizazio garaian gaur egungo Gipuzkoan errealtate sozial eta kultural bikoitza bereizten zela: erromatarrekin lotura zuzenagoa zutenak eta bestetik indigenak. Hala ere, interes komunaren gabezia zela-eta, ez zuten elkar jo; bakoitzak baliabide ezberdinetan eta gutxi gorabehera modu baketsuan

---

26 Peñalver, Xabier eta San Jose, Sonia. *Burdin Aroko herri harresituak Gipuzkoan*. Gipuzkoako Foru Aldundia.



bizi ziren elkarrekin. Badirudi Burdin Aroaren ondoren kastro handietako habitata utzi zela. Biztanle hauek nora jo zuten ez badakigu ere, pentsa daiteke talde txikitik banatu zirela.

«Erromanizazio garaian, lurraldearen kontrola bereganatu ondoren, bertan nolabaiteko bakea eta egonkortasuna bermatzeko, agintari erromatarrek jadanik bertan bizi ziren eliteez baliatu ziren. Inperioaren bat bateko erorialdiarekin nolabaiteko botere-hutsunea gertatu zen eta, agi denez, elite honek bete zuen. Honela, elite hau hainbat baliabide natural kontrolatzeaz eta haietatik onurak ateratzeaz arduratu zen. Horrez gain, komunitatearen berme-emaile militarren papera bete zuen.»<sup>27</sup>

Anoeta herriaren «jaiotza» prozesua, beti ere egun ezagutzen dugun lekuan, eboluzio luze baten emaitza da. Eskualdeko hainbat herrixka inguruko mendien goialdean kokatzen dira, ondo ureztatuta dauden eta eguzkitsuak diren terraza txikietan, eta alturako larreetatik hurbil. Kokapen hauek abeltzaintzarako nahiz nekazaritzarako lur egokiak dituzte, eta batez ere ibaiaren ibar heze eta ospeletatik urrun daude. Herrixka hauek hainbat eragileren eraginaren ondorioz (bertako eliteak, eliza...) gutxi gorabehera milurtekoaren aldaketaren inguruan dute euren jatorria. Ikuspegi hau gutxi gora behera XII-XIII. mendeetatik aurrera aldatuko da soilik, alegia, eragin berri batzuek (biztanle gehiegi, erronka ekonomiko berriak) hauetako zenbait talde bailarak kolonizatzeraz bultzatu zituztenean. Baldintza eskasak zirela-eta (hezetasuna, eguzki gutxi), leku hori ordura arte marjinaltzat hartu zen.

Kokapen berri hauek pasabideak eta komunikabideak kontrolatzeko, eta batez ere, aberastasun berriak baliatzeko aukera izugarriak eskaini zituzten. Hainbat hiribildu batzen zituen Alfontso X.aren bide komertzialen sarean kokatua zegoen Anoeta; beraz, kokapen aldetik garrantzitsua zen.

### *1.8.2. Kontzejua edo giza antolamendu komunitarioa*

Esan bezala, garai honetan urrats handiak eman ziren Anoetaren historian. Azken ia mila urtetan izen berarekin, Ahanoeta, Anueta, Anoeta, eta antzeko antolamendu moduarekin iraun baitu ia gaur arte bertako nekazal-artzain komunitateak Anoeta herri bezala sortzearen arrazoiak artzain komunitateen finkapena da. Etimologikoki, Anoeta izena latineko

---

<sup>27</sup> Moraza, Alfredo. Irurako lehenengo urratsak. in Irurako Historia. Tolosaldea Historia Bilduma 03. Lizardi Kultur Elkarteak.

ana hitzetik dator, zeinak larrea esan nahi baituen.<sup>28</sup> Beraz, Anoeta hitzak larre multzoa esan nahi du.

Garai hartako anoetarrak naturaren osagaiak transformatu eta etxekotzetik bizi ziren, hau da, nekazaritza eta artzaintzatik. Eta Ahanoeta sortzeko elkartu ziren komunitatea osatzen zuten herritarrek bi behar nagusi zituzten: janaria lortu beharra eta bizitzako ziklo biologikoaren urrats nagusiak antolatzeko sistema.

Naturak eskainitako ekoizpenak janari transformatzeko bidean errota oso figura garrantzitsua zen, hau da, labore-aleak birrindu, hauek irin bihurtu eta ogia egiteko ezinbesteko tresna. Errotaren funtzionamendua oso garrantzitsua izanik, bere erabilera funtzionamenduaren antolaketa eskatzen zuen. Errota komunitatearentzat hain garrantzitsua izanik, herritarrek Kontzejuaren bidez kudeatzen zuten. Berau gobernatzeko lehenik ahozko araudi bat jarraitzen zen, gerora, XVI. mendean, dokumentazioa idatziz burutu zelarik. Antolaketa-moduaren garrantzia errotaren eraikitze eta mantenu lanean datza; izan ere, errotek eskatzen zuten lana ez zen batere makala: erreka menperatzeaz gain, hilero mantenu-lan handia eskatzen zuen: turtuki eta ardatzen bidez bertaraino errekatik ura bideratu behar da, uraren indarra erabiliz alea ehotzeko. Ehotzeko harriek aterpe sendo eta lehor bat behar zuten, eta gainera errotako osagai nagusia egurrezkoa zen. Beraz, gizarte komunitateak kontrolatzen zuen. Eta ideia hau oso garrantzitsua da, zeren herri askotan erroten jabeak bertako jauntxoak izaten baitziren eta, sarritan, errotak nekazal komunitatea kontrolatzeko bidea baitzen. Anoetan aldiz, alderantziz gertatu zen.

Anoetako errotei buruz topatu diren dokumenturik antzinakoena XVI. mendekoak dira. 1551. urteko dokumentu batean egun Anoetako Errota izenez ezagutua denari buruz zera aipatzen da: «... que es sito sobre el río Oria, conocido por el dicho nombre de Ierachulo...».<sup>29</sup> Juantxo Agirre Mauleonen hitzetan.<sup>30</sup>

---

28. Kortadi, Edorta eta Orella, Jose Luis: *El camino de Santiago en Guipúzcoa; de Zuberoa a Zaldueño*. Universidad de Deusto. Campus de Donostia.

29. Iera, igara = errota; txulo = zuloa.

Gipuzkoako Agiritegia. PT2, 484a.-485a. Francisco Luzuriaga eskribaua. Aranzadi Zientzi Elkartearen Tolosaldeko Kultur Ondarea eta Historia egitasmoa.

30. Agirre Mauleon, Juantxo: *Ierachulo Errota. Memoria de la intervención arqueológica*. Aranzadi Zientzi Elkartea. Anoeta 2003.

*«en el siglo XVI se documentan dos molinos: Ieratzulo propiedad del concejo y Errotazarra de propiedad privada»<sup>31</sup>. Atendiendo a la terminología podríamos señalar que uno parece más antiguo que el otro, sin embargo pronto se observa que Errotazarra no tiene viabilidad y que es Ieratzulo el que funciona como el molino de Anoeta al que acuden sus baserritarras a moler. Al ser tan importante la molienda es el propio concejo el que detenta su propiedad y control, esto nos muestra una comunidad campesina bien organizada en torno a su concejo».*

Beraz, Anoetako jauntxoek komunitateak kudeatzen zuen errota-  
ren beharra zuten; nekazal komunitatea ez zegoen bertako jauntxo-  
en menpe.

Komunitatearen beste beharra bizitza biologikoaren urrats inportan-  
teenak antolatzeko sistema zen. Hau da, jaiotza, ernaltze edo heriotzaren  
aurrean herritarrek erantzunak behar zituzten, eta eliza da, laguntza  
espirituala emanez, erantzun horiek ematen saiatzen dena. Erantzun  
horien baitan errito batzuk burutzen ziren, errito komunitarioak. Adibi-  
dez, norekin ezkondu, ezkontzaren onarpena eta abarrerako elizaren  
behera zuten herritarrek. Komunitateak, berriz, erritoak antolatzen  
zituen bizitzaren urratsetan. Hala nola, komunitatean kide bat jaiotzean,  
komunitatearen parte zirenen artean unitate berria sortzean –ezkontza,  
alegia– edo komunitateko kide bat hiltzean.

Behar hori asetzeko komunitate hartako kideek San Joan Bataiatzai-  
learen omenezko eliza eraiki zuten, euren erritoak burutu ahal izateko,  
hark eskaintzen zuen babesean aurreneko komunitate espirituala sortuz.  
Anoetako parroki elizaren patronatua merelego<sup>32</sup> motakoa zen, auzoko  
edo etxe-jabeen menpe zegoen eta haren administrazioa erretore, alkate  
eta auzokideen artean izendatutako maiordomoak hartzen zuen beren  
gain. Denborak aurrera egin ahala, elizaren irudiaren babespean sortu-  
tako talde hori lurralde esparru berri bat zehazten hasiko zen, non behar  
espiritualei erantzuteko biltzen ziren herritarrek beren bizimodua anto-  
latzeko eremua ezarriko zuten. Elizaren buruzagitza herritarrena zen, ez  
zen inongo jauntxoarena; beraz, hauek ordaintzen zutenaren eta jasotzen  
zuten bazka izpiritualaren arteko oreka neurtu eta epai zezaketen.

Aipatutako bi behar horien testuinguruan, herritar guztiak ziren ber-  
dinak. Odolez besteak baino gehiago zirela eta desberdintasun sozialaren

---

31. Idiakenez eta Buztinagako jaunen jabetza. Gipuzkoako Agiritegia. PT3, 689a.-690a. Francisco Luzuriaga eskribaua. Aranzadi Zientzi Elkartearen Tolosaldeko Kultur Ondarea eta Historia egitasmoa.

32. Insausti, Sebastián: *Las parroquias de Guipúzcoa en 1862*. Donostia 1964.

lehenengo saiakerak Idiakeztarrek burutu zituzten. Familia honek XVI. mende amaieran jauregi bat ere eraiki nahi izan zuen gaur egungo Idiakaitz auzoa inguruan. Familia honek XVI. mendeko Gipuzkoan eraginik handienetarikoa zuen, Felipe II.aren idazkaria ere familia honetakoa zen. Baina Anoetan lortu nahi izan zuten eredu feudala sortzeko beranduegi zen. Gipuzkoa, antolamendu politiko bezala, jada eratua zegoen eta 100 urte baino gehiago ziren ahaide nagusiak desegin zirela. Gainera, jada, komunitateak indar handia zuen Anoetan. Halere Idiakez familiak Anoetako elizan eragin handia izango zuen mende honetan. Besteak beste, Juan de Idiaquez erregearen kontseilariak kapera bat ezarri zuen Anoetako parrokian<sup>33</sup> edo Anoetako apaiz asko Idiakez familiakoak ziren.<sup>34</sup>

Gure lurraldean Erdi Aroko lehen mendeetan kokatu ziren herritar haien jatorrizko gizarteratzeko modua erabat antolatua dago.

«Elkartze modu horrek ahaideen arteko harremana zuen oinarri, honek baitzekarren jatorri bereko tribu bateko partaide izatearen kontzientzia eta sentimendu horixe izan zen beraien artean elkartzera bultzatzen zituen arrazoi nagusia. Lotura modu horrek, haatik, beste elkartze modu bati eman zion bidea, eta honetan errealitate sozio-territorial berri baten partaide izatea nagusitu zen: alegia, herritarren komunitatearen partaide izatea [...]. Komunitateak modu elkartuan bere lurraldea gobernatzeko –hala ondasunei nola herritarrei zegokioenez– zuen modua izendatzeko agirietan aurkitu den terminoa kontzejua izango da. Komunitate gobernatzeko modu honen helburua autosufizientzia ziurtatzea izan zen beti, eta aukera zegoenean, komunitatearen baliabideak eta ondasunak handitzea, ondarea etorkizuneko belaunaldiei gordez, beraiek aurrekoengandik jaso zuten modu berean.»<sup>35</sup>

Jardunbide horrek anoetarren identitateaz hitz egiteko aukera eskainiko zuen, partaideen patua ezin baitzitekeen bereizi haiek babesten zituen komunitatearenetik. Komunitate hori etxe jabeek edo auzokoek osatzen zuten; etxe baten jabe izatea zen kontzejuko bilkuretan parte hartzeko bete beharrezko baldintza. Beraz, etxeen kontzeptua oso garrantzitsua zen erdi aroko komunitate bizitzan. Gizartea ondoko hurrenkeran zegoen antolatua: etxea, kontzejua, probintzia, koroa eta aitasandutza.

---

33. 1590.06.10. Gipuzkoako Artxibo Orokorra, PT 74 (461a-462g). Eskribaua: Domingo Aburruza. Aranzadi Zientzi Elkartearen Tolosaldeko Kultur Ondarea eta Historia egitasmoa.

34. 1630.04.26. Gipuzkoako Artxibo Orokorra, PT 159 (364a a-369g). Eskribaua: Miguel Bustinaga. Aranzadi Zientzi Elkartearen Tolosaldeko Kultur Ondarea eta Historia egitasmoa.

35. Mora, Juan Carlos. Bizimodua komunitatean: Kontzejua. In Irurako Historia. Tolosaldea Historia Bilduma 03. Lizardi Kultur Elkartea.

Honela, etxea, familiarekin batera, antolatzearen eta gizarteratzearen oinarritzko osagaia zen, gizabanakoa eta komunitatearen arteko lokarria. Bakoitzak zuen betebeharrak edo funtzioarekin lotuta zegoen bizimodua; eta, ikuskera horretan, etxeak eta kontzejuak bi errealitate banaezin osatzen zuten.

Auzokoa izatea, eta ondorioz eskubideduna izatea, ez dago, baina, herrian bizi diren guztien esku; hau da, herritar guztiak ez dira auzokoak. Auzoa ez da bakarrik toki zehatz bat. Honetaz gain, antolakuntza politikorako gunea dugu. Bertan, hainbat Etxe guztiz eskubidedunak dira: auzokoak dira. Beste batzuk, berriz, maila apalagoa dute; ez dira auzokoak, biztanle hutsak baizik. Madozek 1850ean Anoetan «39 vecinos y 195 almas» bizi direla zioen, hau da, 39 auzoko eta 195 biztanle.

Auzokoek zuten erabaki ahalmena 1541eko abenduaren 28ko ondoko dokumentuan argi geratzen da. Agiri hau, Anoetako bizilagunek San Joan elizako erretorea hautatzeko Iruñeako elizbarrutiko prokuradoreei luzatutako ahalordetza da. Anoetako Sarobe, Ateaga, Arrutarte, Aguirre, Errecambia, Tapia, Erausia, Miquelesagasti, Urreyçeta, Aguinagarena, Barrundia, Mendiguibel, Arguindegui eta Alliriko etxeetako jabeek Martin Garmendia aukeratzen dute Anoetako erretore posturako

«todos vezinos de e moradores de la dicha tierra de Anoeta, dezmeros parrochianos de la yglesia parrochial de Señor Sant Juan de la dicha Anoeta, todos los quales e cada uno dellos por sy e sobre sy e cada uno dellos por su casa [...] por quanto a los sobredichose cada uno dellos por si e por las dichas sus casas como patronos legos ( ) les pertenesçia e pertenesçe el derecho de elegir, nonbrar y presentar retor para la dicha yglesia».<sup>36</sup>

XIV. eta XIX. mendeen artean, pertsonak etxearen eta familiaren esparruan antolatzen diren bezala, etxeak komunitatean, kontzejuan, antolatzen dira, non gobernatzeko eta antolatzeko papera Udalaren esku dagoen. Era berean, udalaren esfera probintziaren esferaren barnean kokatzen da. Azken honetan Batzar Nagusiak<sup>37</sup> gobernatzen dute, eta bertan udal guztien ordezkariak daude.

---

36. 1541.12.28. Gipuzkoako Artxibo Orokorra, PT 2 (85 a-89g). Eskribaua: Francisco Luzuriaga. Aranzadi Zientzi Elkartearen Tolosaldeko Kultur Ondarea eta Historia egitasmoa.

37. Batzar Nagusiak: Gipuzkoako hiribilduek osatzen duten batzarra. Hiribildu bakoitzaren ordezkariak urtean bitan, bi astez, bildu eta amankomunean dituzten arazoez aritzen dira. Hartutako erabakiak batzarren arteko denboraldian jorratzea Foru Aldundiaren lana da. Familiaren eta probintziaren esferak duten erlazioak erakusten du sendiaren terminoetatik datorrela hizkera politikoa.

### 1.8.3. Baserrien sorrera, komunitate-bizitzaren finkapena

Anoetan, Burdin Aroan etxeak eraikitzeko oinarrizko materialak erabiltzen zituzten: lurra, harria eta zura. Paretaren zutabeak zurezkoak izan ohi ziren, horma adar bilbez eraikitzen zuten –zestoak bezala– eta azkenik guzti hau lokatzez egindako pezoiez estaltzen zuten. Etxearen barruan jarduera gutxi burutzen zituzten bazituzten ere, nekazal ekoizpenak gordetzeko ere erabiltzen zuten.

Aurreko atalean azaldu dugun bezala, Burdin Arotik Behe Erdi Aro arte oso informazio gutxi dago; baina dirudienez, garai hartako etxebizitzak zurezko txabola txikiak ziren, ia banatugabeko espazioak zituztenak. Ez dago argi horietan, familia bizitzeko eremuaz gain, abereentzako eta lastoa gordetzeko lekurik bazen edo ez.

XVI. mende hasieran Anoetako bailaretan baserriak sortu izana Erdi Aroko txabola horien aurrerapauso izan zen, herrialdean emandako baldintza sozial, ekonomiko eta teknologia berrien aurrerapausoen erantzuna. Urte oso gutxiren buruan hamalau<sup>38</sup> baserri sortu izana gizarte-aldaketa bizkorreko prozesu bat izan zenez, Alberto Santanaren hitzetan, kultur paradigma eta bizimoduaren aldaketa bat izan zen, ez esplizitua; baina bai, ordea, kolektiboak onartua. Aurrerapauso horiek eragin zituzten baldintzak ondokoak izan ziren:

Lehenik eta behin, zelaietan bizi zen segurtasun- eta bake-giroa. Ordurako amaitu ziren leinuen arteko bandokideen gatazkak, nekazarien etxe ugari erasotzen zituztenak. Kontuan hartzeko beste faktoreetako bat XVI. mende hasieran biztanleriak izandako hazkundea izan zen. Hedadura demografiko hori zela-eta, bizitzeko eta produzitzeko espazio berriak berritu behar izan zituzten. Ondoko atalean ikusiko dugun bezala, hori guztia lortzeko basoak luberritu eta herri-lurrak suntsitu zituzten.

Ekonomia egoera ere oso oparoa zen, batez ere Amerikaren konkistaren eraginez, eta nekazariak diru-sarrera osagarri handiak eskuratu zituzten. Baldintza hauek ogiaren eskaria igoaraztea bultzatu zuten eta familiek gariari eskainitako azalera handitzearen apustua egin zuten. Gariak ez ezik, sagardoak ere Anoetako baserrien garapena ahalbidetu zuten, etxeetan edaten ziren edari bakarrak ura eta sagardoa baitziren. Anoetan garai honetako tolarearen arrastoa Sarobe baserrian behintzat

---

38. Sarobe, Ateaga, Arrutarte, Agirre, Errekanbia, Tapia, Erausia, Mikelesagasti, Urreizeta, Aginagarena, Barrundia, Mendigibel, Argindegi eta Alliri.

mantentzen da. Zurezko tolare hauek baserriaren beheko oinean kokatzen ziren, baserriko erdiko zutabea oso osorik hartzen zuelarik palanka egiteko. Sagardoa produzitzeko makinak eraikinaren egituraren duen protagonismoak sagardoak zuen garrantzia adierazten du.

Aurrerapen teknologikoez ere garrantzi handia izan zuten. Teknika berriak erabiltzeaz gain, ordurarte ohikoa zatekeenarekiko oso bestela, garai hartan txabolak erabiltzaileek altxatzen baitzituzten eta baserri berrien exekuzioa eskulangileen esku zegoen.

Honela, baserria, sorreratik nekazaritza eta abelazkuntzako produkzio unitate baten lanabesetako garrantzitsuena da. Etxe bat zen, baina bertan egoitza elementuak oso bigarren mailakoak ziren. Egoitza elementuen inguruan espazio espezializatu sorta bat zeuden/daude. Abere mota desberdinak ikuiluratzeko inguruak, uztan bildutako era guztietako produktuak eraldatzeko edo eskulangintzarako beste espazio batzuk.

Bizimodu aldaketa honek Anoetako komunitatearen eta gizarte antolamenduaren finkapena ekarri zuen. Mendeetan Anoetako gizarte tradizionalaren zentro eta bere egonkortasunaren ardatz bezala hartuta baserria familia bizitzeko etxea, edo nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapengunea baino askoz ere gehiago da. Santanaren<sup>39</sup> hitzetan:

«Arbasoen memoriaren espazio sakratua da eta kulturaren ugalketarako babesleku; aldi berean auzotasun-harremanetan eta komunitate-bizitzan berezko nortasun, eskubide eta obligazioak dituen subjektua da. Baserriak, bertan bizi direnei nortasuna eta hainbat obligazio ematen edo transferitzen dizkie, bai eta bere izena ere».

XV. mendeko anoetarrentzat eguneroko bizitzan baserriaren izenak familiaren abizenaren tokia hartzen zuen. Eta duela gutxi arte, nekazal-komunitatearen ikuspegitik baserria, anoetarren etxea, izaki betierekoa eta bakarra izan da, eta izaki hori bere baitan erreproduzitu da, oinordetzen hartutako tradizioaren hartzailerik soil gisa betetzen zuten gizon eta emakumeen belaunaldien bidez.

#### 1.8.4. *Lur antolamendu komunitarioa*

Naturaren osagaiak eraldatu eta etxekotzetik bizi zen komunitate hura finkatu ostean, Anoetako lurretan garrantzi handia zuten komunitatearen

---

39. Santana, Alberto; Larrañaga, Juan Ángel; Loinaz, José Luis eta Zulueta, Alberto: *Euskal Herriko baserriaren arkitektura I. Historia eta tipologia*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Gasteiz, 2002.

lurrek. Sarobeek zuten garrantziaren adierazle da Anoetako Elbarrena bailaran kokatzen den XV. mende amaiera-XVI. mende haserako Sarobe izeneko baserria edo herrian aurki daitezkeen aztarnak. Sarobeak<sup>40</sup> edo saroiak lur eremu zirkularrak ziren, zeinaren erdian harri bat ezartzen baitzen artamugarri, izenez ezagutua. Sarobe eta herri lurren arteko erlazioaz zera esan daiteke:

*«Los seles [sarobeak] han sido la unidad básica de la arquitectura del espacio comunal en el hábitat pastoril. Un sel es una unidad de explotación, primero pastoril y con el paso del tiempo también forestal, que es complementaria al espacio comunal».*<sup>41</sup>

Dirudienez, saroiak artzain mundu komunaltzalearekin loturik agertzen dira, baina baita jadanik aldatzen ari den sistema sozialarekin ere. Dokumentu zaharretan, saroiak nomadismotik sedentarismorantz (transhumantzia mugatuarekin; alegia, artaldeak zaintzeko babesleku finko batekin) zuzentzen ari den gizarte batekin loturik agertzen dira.

Sistema sozialaren aldaketa horretan komunalen pribatizazioa ematen da, eta saroiaren lurraldeetan baserriak eraikitzen hasten dira. Era honetan, antzinako saroiaren izaera komunala galtzen hasten da, eta unibertso komunaltzalearen inguruan saroiak jabego pribatuaren uharte bihurtzen dira.

Jabetza pribatuaren hedapenak sarobearen izaera komunala galarazi bazuen ere, gaur egun arte lur antolaketa komunalarren arrastoak mantendu dira, herri lurrak alegia. Lursail hauek herriarenak izan ohi ziren eta herritarrek erabiltzen zituzten libreki. Lur eremu hauek elkarte, anaiarte edo partzuergo batek kudeatzen zituen eta instituzio hauek errepresentatzen zituzten artzain eta abeltzainen interesak. Orain gutxi arte anoetarrek erabiltzen zituzten mota honelako lursailak.

*«Pastores de las localidades guipuzcoanas de Aia, Errezil, Asteasu y Anoeta, arriendan en el monte Ernio un terreno que pertenece en común a 14 caseríos. Cada pastor paga renta anual que en 1997 ascendió a 10.000 pesetas (60€) con independencia del número de cabezas que lleve a estos pastos. El pago se realiza el día de San Ignacio (uztailak 31) en la reunión que los pastores celebran en una de las txabolas. [...] Estos pastores de Ernio realizan labores en común; así en las*

---

40. Gipuzkoako Foruen XX. Tituluko III. Kapituluari jasotzen denez: «Ordenamos y mandamos que que en toda ella (Gipuzkoa) haya de tener tenga el sel (sarobeak) común en el remate y en circunferencia setenta y dos goravillas, de a siete estados o bezadas cada goravillas, tirando desde el mojón, como de centro alrededor».

41. Zaldua, Luis Mari: «Seles en Vasconia. Ganadería y pastoreo en Vasconia», in *Atlas Etnográfico de Vasconia*. Eusko Jaurlaritza.



*zonas donde hay dolinas pequeñas las llenan de ramas para evitar que caigan los animales en ellas; también proceden a cerrar las fuentes para evitar que las ensucien los animales.»<sup>42</sup>*

Iñaki Egañak herri lurrak eta euskaldunen komunitate-filosofiaren zeinu direla nabarmentzen du.

*«Los bienes comunales han sido una de las características más llamativas de la estructura social vasca. A diferencia de muchas otras culturas, incluida la romana que pasó por Euskal Herria al comienzo de nuestra era, la propiedad de la tierra para los vascos ha sido compartida. La utilización de la tierra y el agua como patrimonio colectivo responde a una filosofía participativa y socializadora de los recursos naturales.»<sup>43</sup>*

### 1.8.5. Auzolana, lan komunitarioa

Auzolana, komunitatearen garapenerako burutzen den elkarlan antolatua da; auzoko bizitza orokorrean auzokoek dituzten azpiegitura eta baliabideen beharrak lantzeko auzokoek elkarrekikotasunean burututako ohiturazko lana. Anoetan, XX. mendean burututakoak soilik daude dokumentatuak, ondoko lanak burutu direlarik: XX. mende hasieran San Joan Bataiatzailearen eliza erre ostean, zimitorioa edo elizako arkupearen berreskurapena; 1942an frontoia; 50. hamarkadan Madril-Irun trenbidearen geralekua, Goibailara eta Elbarrena bailaretako hainbat bide ireki eta urtero mantendu edo 1971ean Anoetako pilotaleku berria, zeinari auzolanaren emaitza izan zenez Alkartasuna izena jarri baitzitzaion, 1974an Hernialdeko iturburu batetik urak ekarri ziren eta 1976an kanposanturako bidea. Auzolanak Anoetan XXI. mendean ere irauten du, honela, Goiballarako biztanleak, baserritar zein etxeen jabeak, bailara hartara doan bidea zabaldu zuten auzolanean 2004ko udazkenean.

Aurreko atalean genioen bezala, herriko sorrera eta ondorengo mendeetan ere, herritarren gizarteratzeko modua erabat antolatuta zegoen. Elkartze modu horrek herritarren arteko harremana zuen oinarri eta komunitate bateko partaide izatearen kontzientzia eta sentimendua zen elkarren artean elkartzea bultzatzen zituen arrazoi nagusia; harremanak onak ala txarrak izan, herritarrak behartuta zeuden. Bestetik, gizarte egituraketa horretan auzokoen figura oso garrantzitsua zen, guztiz eskubi-

---

42. Pastos Comunes. in Ganadería y pastoreo en Vasconia. Atlas Etnográfico de Vasconia. Eusko Jaurlaritza.

43. Egaña, Iñaki: *Diccionario histórico-político de Euskal Herria*. Txalaparta.



1971an Alkartasuna pilotalekua auzolanean eraiki osteko argazkia (Argindegi baserrian jasoa).

dedunak baitziren. Honela, antolamendu hura auzokoen berdintasun printzipioaren arabera zegoen eratua.

Gaur egun arte mantendu den auzolana auzokoez osatutako gizarte antolamendu kolektibo haren aztarna izan daiteke; baita auzokoen berdintasun printzipioa ere, izan ere auzolanerako deituak ziren eta elkartzen ziren auzokoak betebehara eta eskubide berak baitituzte. Beraz, etxe-jabe edo auzokoen figura mantentzen da oraindik. Anoetan oraindik ere mantentzen den komunitatearen elkartasun baloreetako bat, etxe-erretetan elkartearena da. Gutxi gora behera 1950ean sortu zen eta herriko hainbat baserritarrek osatzen dute. Urtero, errege egunez, urtarilaren 6an, elkartu ohi dira dirua jartzeko bileran, eta baserriren bat errete ere laguntza ematea da elkartearen helburua.

Herrian, auzolanaren beste adibide bat ere badago, kasu honetan azpiegitura edo eraikina eraiki beharrean herri kultura eta hezkuntza baliabideak izan zituen helburu: Anoetako Herri Ikastola sortzea. Ikastola sortzeko ahaleginak ulertzeko, ezinbestekoa da hirurogeigarren hamarkadan Euskal Herriak bizi zuen egoera sozio-politikoaren gogoan izatea:

«Espainiako gerra ondoko diktadurak irauten zuen gure artean, eta euskara guztiz baztertua eta zapalduta aurkitzen zen gure gizartearen. Aldi berean, irakaskuntza mailan, guztiz zokoratuta zegoen euskara(...) egoera honen aurrean, Anoetan, apurka-apurka ikuspegiz eta pentsamoldez aldatzen hasi zen jendea. Herriko guraso, gazte euskaltzale eta beste zenbaiten laguntzaz egoera larri hura

gainditzea helburutzat hartuz, Ikastola sortzea erabaki zen [...]. Urte haietan Don Ramon Murua herriko parrokoak parrokiaren lokal bat eskaini zion ikastolari, lehen pausuak egin zitzaizkion. Honela 1969ko otsailean sortu zen, 23 ikaslerekin, Anoetako Ikastola. Bertan aritu zen lehenengo andereñoa Eukene Sarasola izan zen».<sup>44</sup>

Gurasoek ordaintzen zituzten kuotez gain, etxez etxe ere dirulaguntzak jaso ziren. Baina urteak aurrera joan ahala diru kopuru handiagoa behar zenez, zenbait zozketa, pilota partidu, bertso jaialdi, herriko festetako taberna eta abesti-jaialdi antolatu ziren, besteak beste *Ez dok hamairu*, Egan, Xabier Lete... hau guztia aurrera eramateko ezinbestekoak izan ziren guraso eta Herri Gazte taldearen laguntza. Kasu honetan ere auzolana martxan jarri zen, herriko eragileen arteko koordinazioa aktibatuz.

Garbi ikusten da Anoetako historian zehar komunitateak eta komunitatearen elkarlanak, auzolanak alegia, izan duten garrantzia. Etorkizunari begira ere, ezein garapen espaziori begira ezinbestez kontutan hartu beharreko balorea hain zuzen ere.

#### 1.8.6. *Balore kolektiboaren galera*

Aurreko lerroetan abiatuta, zera ondorioztatu dezakegu, herriaren sorreran gizarte antolamendu kolektiboak ezinbesteko garrantzia izan zuela, bai herritarren beharrei erantzuteko, bai lur eta lan antolamenduan. Halere esana dugun bezala, gizarte tradizionaletik globalizatzaileara pasatzean bilakaera bat izan du Euskal Herriak, erlijioetik zientziara, landa guneetatik ingurune urbanora, nekazaritza ekonomiatik industria-ekonomiara. Bilakaera honetan, balore indibidualistak kolektiboek gailendu zaizkie. Finean, proiektu, kontzeptu, harreman eta sare komunitarioak izoztu dituen gizartean, gizaki indibiduala bultzarazteko baliabideak sortu dira. Peter Bergerrren hitzetan industrializazioak zera bultzatu du; komunitate tradizional txikien beherakada, erabaki pertsonalen zabalkundea eta etorkizuneko orientazio eta denbora igaro izanaren kontzientzia. Aipatu autorearen hitzetan:<sup>45</sup>

*«La modernidad implica el progresivo debilitamiento, si no la destrucción, de las comunidades definidas y relativamente cohesionadas en las que las personas*

---

44. Iraeta, Karmele: *Anoetako Herri Ikastola 25. urteurrena*. Iturriak Bilduma. Anoetako Herri Ikastola. 1994 Anoeta.

45. Berger, Peter: «Cambio social: sociedades tradicionales, modernas y posmodernas» in *Maciouis eta Plummer* «Sociología» Prentice may, 2001.

*encontraron solidaridad y significado durante la mayor parte de su historia. Las poblaciones vivían en grupos pequeños con su familia y sus vecinos. Este tipo de mundos tradicionales –basados en los sentimientos y en creencias transmitidas de generación en generación– asignaba a cada persona un papel bien definido. Estos grupos primarios limitaban el espectro de experiencias de las personas, al mismo tiempo que les proporcionaba un fuerte sentido de la identidad, de la pertenencia y destino».*

Hitz batean, industrializazioak familia eta harreman sareak eta tradizioa ahuldu ditu eta indibidualismoa bultzatu eraginkortasunari enfasia ezarriaz. Tawneyk<sup>46</sup> Zapaburuaren Filosofia deritzanean dioskunez, kapitalismoak beti erabili izan du estrategia jakin bat altxamendu kolektiboak saihesteko: zenbait indibiduori salbamen indibiduala eskaini, gainerakoei demostratuz gaitasun indibidualak direla eta ez injustizia estrukturalak gizarteko solairu batean ala bestean kokatzen gaituztenak. Ondoko diskurtsoa barneratu dugu ondorioz: kaltetutako pertsonak, nahi izanez gero, irten egin daitezke sistema sozio-ekonomiko honek sortzen dakien infernutik. Indibiduoak irten daitezke egoera sozial kaxkarretatik euren esfortzu eta inteligentziarekin, berezi gaituenak.

Kolektibo marjinetuetako kide kapazenei irtenbide indibiduala eskainiko zaie, eta horrek estrategia kolektiboak suntsitzen ditu. Ordena soziala aldatzea helburu duten estrategia eraldatzaileak desaktibatzea bilatuko da. Tawneyren iritzian, kapitalismoak ondokoaz konbentzitu nahi izan gaitu: zapaburu inteligente eta kapazenak halako batean lortuko dute igel bihurtzea, jausiko zaie buztana eta gorputza sendotuko, miseriaren ur putzuetatik irtengo dira eta lurra zapaltzen ikasiko. Gehiengo zapaburu gisa bizi eta hilko da, hori da gaurko kapitalismo globalizatu eta ultra-liberalaren lezioa.

Eredu liberala oinarritzen den ardatz nagusiak zera dio, eskubideak gizabanakoenak baino ez direla eta gizartea gizabanakoen batuketa baino ez denez, taldeen eskubideen aldeko aldarrikapenak kanpo gelditzen dira. Esteban Antxustegik<sup>47</sup> dioen bezala, eredu liberala gizabanakoaren inguruan soilik eraikitzen dela azpimarratu izan da, indibiduoaren eskubideak baino ez direla kontuan hartzen, eta komunitate politikoa haren zerbitzura jartzen dela. Neoliberalismoak punta-puntan jarri duen eredu

---

46. Tawney, R H.: *La sociedad adquisitiva*, Alianza, Madrid.

47. Antxustegi, Esteban: «Etika eta Politika». *Berria* (2003-07-23)

honek gizaki berekoiak bultzatzen dituela eta elkargo hauen balio garrantzitsuena bakoitzaren arrakasta pertsonala lortzea izaten dela salatu izan da, besteekin proiektuak gauzatzeko zailtasuna nabarmenduz. Ezaugarri horiekin gizarte atomizatu eta zatikatu bat gelditzen zaigu, kohesiorik gabekoa, partizipazio eta inplikazio politiko murriztarekin, komunitatea osatzen duten partaideen arteko elkartasunik eza nagusituz.

Gaur, gizarte (post)modernoetan, introspektzio indibiduala eta niaren zainketa dugu egiteko garrantzitsuenetakoa. Izan ere, auto-errealizazio indibiduala balio kultural goren bihurtu zaigu. Tradizioak indarra galdu du geure bizitzak gidatzeko lanetan. Gauzak honela, ondoko atalean ikusiko dugun bezala, Anoetan auzolan kulturala gauzatu ahal izateko komunitarismoaren eredia jarraitzeko saiakera egin da.

## 2. Kultur espazio berriak

«Badakizue ipurtargiarena? Kinkan daude. Naturaren bilakaera berezia osatzen dute ipurtargiek. Biziberritzea ziurtatzeko estrategia dute argia: emeek argi egiten dute gauez, argi hori ikusita aurkitzen dituzte arrek, eta hala erreprodukzioa ziurtatu. Azken aldian, ordea, gauez nonahi dago elektra-argia, eta arrei ezinezkoa zaie emeak aurkitzea. Argien inbasioak ipurtargia arriskuan dauka ingurune industrializatuan. Kultura ere ipurtargien argia bezala da: hazidunak erakartzeko modua, biziberritzea ziurtatzekotan. Eta gure kasuan ere, argien inflazioa ez dago urruti. Zorionez, naturaren etorkizuna ez dago Ingurugiro Politiken mende bakarrik. Baina horiek ere eragin dezake».<sup>48</sup>

Anoetan, herritarren arteko harremanak sortarazteko herri kultura landu da. Kultur adierazpen ezberdinak sinboloen bidez errepresentatu dira. Sinbolo sinpleak herritarrek bereak bezala berehala identifikatzeko. Kultur politika hau, ipurtargien biziberritzean bezala herritarrak erakartzean oinarritu da. Herritarra erakarria sentitu dadin ezinbestekoa da herritarra kultur adierazpenetan subjektu sentitzea, objektu sentitu beharrean. Hori lortze bidean herritarren parte hartzea ezinbestekoa da, eta herritarren parte hartzeko herritarrek ezagutzen duten eredu batean oinarritua egin da, auzolanean.

Historian zehar euren garapenerako beharrezko zituzten bide, pilotaleku, ikastola... sortze bidean, auzolana bultzatu zuten anoetarrek.

---

48. Sarasua, Jon: «Ipurtargiak», in *Guggenheim aztertuz*. Euskaldunon egunkaria. (1997-09-27).

Kasu honetan, herritarren arteko harreman sareak sortarazteko bidean, «auzolan kulturalaren» bidera jo da. Herritarren parte hartzea bultzatzean ezinbesteko ideia parte hartze demokraziarena da, herritarrek subjektu izan eta sentitu behar baitute beraien inplikazioa lortu nahi bada. Objektu sentsazioa duten neurrian parte hartzea ez baita lortuko Ondoren azalduko dugun auzolan kultural kontzeptu horretan komunitatearen elkarlanak garrantzia handia du. Azken batean, komunitatearen balore historikoak berreskuratzean egin delako Anoetako saiakera.

### *2. 1. Auzolan kulturala*

Anoetan, kontzeptu kognitibo metaforiko bat erabiliz, kultur espazio berrien sorkuntzan auzolan kulturalaren bidea jorratu zen. Antzeko beste esperientzia Zuberoakoa izan daiteke. Mixel Etxekoparrek<sup>49</sup> dion bezala, Zuberoan tradizioan oinarrituriko kultura espazio berriak sortu badira, dinamika herrikoi baten ondorio izan direlako da. Eta dinamika herrikoi hori Zuberoko artzainen lan jardun kolektiboaren ideian oinarrituta egin da. Bere hitzetan «Espazioaren sortzeko, denboraren kudeatzeko baita jendarteko harremanen joanarazteko dira ezaugarri batzuk, erakasgarri izan daitezkeenak denentzat». Hau da, Mixel Etxekoparren ustean, eskualde batean kultur dinamizazio bat eman dadin, ezinbestekoa da bultzatzaileek bertako herritarrek aktibitate kultural tradizionalak antolatzeke erabiltzen duten sistema sinboliko-kognitiboan oinarritzea. Eta Kepa Fdez. de Larrinoak<sup>50</sup> gai honen inguruan zera eranstean du:

«Su puesta en marcha tiene que hacer compatibles la memoria del pasado, las circunstancias del presente y las propuestas de futuro que se sugieren, de modo que una impresión de ruptura cultural no se produzca entre los vecinos [...] el vínculo entre tradición y modernidad cultural se establece al coincidir que quienes gestionan, participan y asisten a actividades culturales de corte contemporáneo recurren para su comprensión al sistema simbólico que caracteriza a la organización de eventos culturales tradicionales».

Eta Zuberoan sistema hori mendi larreak erabiltzeko sistema da, hau da Olhak kudeatzeko sistema. Anoetaren kasuan, aldiz, sinbolo kognitibo hori auzolanarena da.

---

49. Etxekopar, Mixel. Kulturalen egoera Zuberoa bezalako eremu tiki batean: biharko tradizioa nola sortu? in Sabor de antaño: notas sobre identidad local, actualización etnográfica y desarrollo cultural. UPV-EHU.

50. Fdez. de Larrinoa, Kepa. El puzzle del patrimonio in Sabor de antaño: notas sobre identidad local, actualización etnográfica y desarrollo cultural. UPV-EHU.

Anoeta, aitzinean aipatu den bezala, XX. mende erdi arte nekazal herri bat izan da. Gauzak honela, herritarren ongizate eta garapen pertsonal eta kolektiborako herritarren elkartasuna ezinbesteko balorea izan da historikoki; herriaren garapenean komunitateak garrantzia handia izan du. Gauzak honela, orain arteko ideia-lokarriak lotzeko, hau da herritarren partehartzea sistema sinboliko-kognitiboa lantzeko, auzolan kulturala dei diezaiokeguna landu da Anoetan. Hau da, herriaren garapen kulturala lortzeko dinamika herrikoa lantzea; herriko eragile eta norbanakoen arteko dinamika lantzea. Eta auzolan kulturala burutu dadin, funtsezko hiru baloreak, herri-identitatearen garapena, balore komunitarioen berreskurapena eta parte hartze demokraziaren aplikazioa izan dira.

### *2.1.1. Herri identitatearen sendotzea*

Nekazaritza giroko gizarte tradizionaletik mundu globalizatura igarotzean, kultur homogeneotasunaren aldeko indarrak aktibatu dira, baina baita, Manuel Castells-ek<sup>51</sup> dioen moduan, identitatearen boterea ere: hau da, konpartitutako esperientzia sozio-historikoetan bildu eta sentiera kolektibo ezberdinak irauteko nahia. Guzti hauek partikularitasun kulturalaren alde gertatzen diren erreakzio defentsiboak dira, hau da, berezitasun kulturala babestu beharra iragartzen da. Eskubide kolektiboak onartuz eta iraupena babesteko neurrien bidez, gizabanako-herritarren identitatea eta garapena bermatuz.

Zentzu horretan, Anoetan herritarren harreman sareak eratzeko bidean oinarri sinboliko-kulturalak hartu dira. Joseba Azkarraga<sup>52</sup> soziologoak dioskunez, ordena sinbolikoetan sostengatzen garen gizakiak gara, sare afektiboak sortzen ditugu hortik, eta ongizate psikikoa erdietsi. Izan ere, bere hitzetan, gizakiontzat jatekoa bezain garrantzitsua da gure portaera gidatuko duen marko moral eta kulturala. Hitz batean, auzolan kulturala herritar berri eta gazteen buruak herrian definitzeko helduleku sinboliko eta identitarioa da, euren buruak esperientzia kultural eta historiko batean kokatzeko eraikin sinbolikoak.

Taylorrrek, identitate prozesuen eraikuntzaz ari denean, identitatea pertsona batek nor den eta gizaki bezala definitzen duten oinarritzko ezaugarriei buruz egiten duen interpretaziotzat jotzen zuen. Egile honen

---

51. Castells, Manuel: *El poder de la identidad vol 2. La era de la información*, 3 vols. Alianza.

52. Azkarraga Etxegibel, Joseba: «Horroreak badu azalpenik». *Berria* (2004-03-16).


ustez, identitatea onarpenaren bidez gauzatzen da, gizakiok geure burua besteekin definitzen dugu. Identitatea, bizitzan zehar, besteekin («beste esanguratsuekin» batez ere) elkarrizketan sartzen garenean agertzen da. Hortaz, besteak, beraien bidez iristen baikara baloratzen dugunera, gure identitatearen parte bilakatzen dira.

### 2.1.2. *Kultura sinbolikoa*

Kultura sinbolikoa gizabanako eta taldearentzat bizitzeko adierazpen eta jarraibideak dira, hau da, herri edo gizarte jakin batek gizakiarekiko, gizartearekiko izadiarekiko dituen ideia, balio eta arau adierazgarrien sistema.

Kulturari buruz hitz egiten hasi orduko, gizabanakoon esperientzi pribatua etortzen zaigu burura: sortzailearen lan bakartiak eta kultur edo kultur emaitzen jasotzeko moduak horretara eramaten gaitu. Baina kulturaren dimentsio soziala azpimarratu behar da. Testuinguru tenporal eta geografiko batean, gaur eta hemen, gertatzen den giza fenomeno da kultura. Gaurko eta hemengo parametro kultural jakin batzuen arabera pentsatzen dugu, gaurko eta hemengo parametro kulturalen arabera bizi eta erlazionatzen gara, parametro horien arabera eta horiei esker lantzen ditugu gure adimenaren eta sentiberatasunaren aukerak. Gizon-emakume guztiok gara, definizioz, kulturadun: kultur parametro jakin batzuen arabera espresatzen dugu gure giza esperientzia; ez dugu ezerezaren gainean sortzen, sortutakoaren komunikazioa ere ez dugu ezerezaren gainean eraikitzen; identitatearen gainean baizik. Anjel Lertxundiren hitzez «Kulturak egiten gaitu, kultura egiten dugu».

Herri baten identitatean eragiten duten kultura sinbolikoaren aldagaiak hiru planotan bereiz daitezke: norbanakoa, herritarren harreman sarea eta gizartearen egitura. Aipatu hiru planoek eragiten dute, aldi berean, herriaren bizindar identitarioan, eta beraz, plano bakoitzean sortzen diren zailtasunak edo ematen diren indarguneak izango dira herri identitate biziaren euskarri direnak.





Eta Anoetan kultura sinbolikoa hizkuntzaren zabalpenetik eraiki da. Izan ere, euskara eta, oro har, hizkuntzak ez dira hitz egiteko kode mekaniko huts, kultura baten isla eta adierazle baizik. Hizkuntzen arteko alde ez du sortzen soinuaren desberdintasunak, hizkuntza bakoitzak duen munduaren ikuskerak baizik. Giza talde bakoitzak duen izaeran, hizkuntzan eta munduaren ikuskeran oinarrituz (modus operandi edo prozesuak), onartzen bada kultura eguneroko bizimoduan sortzen diren beharrei ematen dizkien soluzioen eta belaunaldi batetik bestera eskualdatzeko asmoz metatzen den jakituria, egiteko era, jokamolde, usadio, arau, balio, ideia, sinesmen eta mitoen multzoa (opus operatum edo produktuak) dela, hizkuntza, orduan, kulturaren isla eta, era berean, adierazle da.

### 2.1.3. *Komunitatearen baloreen berreskurapena*

«Auzolan kulturala» praktikan jartzeko ezinbestekoa da, bizimodu tradizionaletik (post)modernistara igarotzean galdutako balore tradizionalak berreskuratzea. Gauzak honela, dinamika komunitarista aktibatzeke saiakera egin da Anoetan. Honela, gizabanakoari baino gehiago komunitateari ematen zaio garrantzia, asebetearen kulturari jarraikiz gizabanakoaren aisia asetuko duen kultur produkzioaren ordez. Hitz batean, historiaren, hizkuntzaren, ohituraren edo izaeraren bidez gauzatuz joan den proiektu kolektiboari, Esteban Antxustegik eredu komunitaristaren inguruan dioen bezala.<sup>53</sup>

«Komunitatearen iraupena jotzen da balio nagusitzat, partaideen arteko elkartasuna ezinbestekoa bilakatuz. Gizabanakoa, zentzu horretan, historikoa gertatzen da, gizarte jakin batean kokatua eta horri atxikia. Bakoitzaren sozializazioa komunitatearen barruan gertatzen da, bertan jaso eta konpartitzen baitira balioak, besteeikiko betebeharrak bertan sortuz. Eredu horren defendatzaileek azpimarratzen dute eskubide indibidualak ez direla aski gizarteari kohesioa eta elkartasun nahikoa eskaintzeko, eta bakoitzaren helburu pribatuez gain beharrezkoa dela gizarteari zentzua eta balio emango dion helburu kolektiboa, elkarrekin bizitzeko ethos baten beharra.»

### 2.1.4. *Parte hartze demokrazia*

Gaur egungo sistema politikoan ezarria dagoen demokrazia ez da zuzeneko, ordezkapeneko baizik. Esteban Antxustegik<sup>54</sup> dioenez, «egungo demokrazia neurri handi batean antzinakoaren etsaia da, gaurkoaren

---

53. Antxustegi, Esteban: «Etika eta politika». *Berria* (2003-07-23).

54. Antxustegi, Esteban: «Demokraziak». *Berria* (2003-11-08).

jatorri errepublikarrean herriak ez zuelako gobernatzen, ordezkoez zirelako haren borondatearen interpretatzaileak. Errepublika ez zen herriaren gobernu, komunitate politiko osoa ordezkatzeko zutenaren gobernu baizik». Egungo demokrazia hauteskunde-lehiaren bidez baimendua gelditzen den gehiengoaren gobernu osatzen duten politikarien gobernu da. Demokraziak, Tocquevillen hitzak gogora ekarriz, Estatuaren antolaketa baino gehiago gizartearen antolaketa esan nahi du. Errezeta sinplea da: herriari eman hitza.

«Horixe izan beharko luke, hain zuzen, demokrazia: guztioi dagozkigun eronkei irtenbidea emateko gai den sistema irekia gauzatzea, beti osatzen ari den sistema, inoiz itxi edo biribildu ezin daitekeena. Erabakiak hartzeko garaian, benetan komunitate politiko sendoa eraiki nahi bada, partaideen arteko elkartasuna ezinbesteko erronka gertatzen da.»<sup>55</sup>

Parte hartze demokraziaren ideiekin bat eginez herriaren nahiaren arabera trajea josi dadin ezinbestekoa da herriko oihala eta hariekin, herriko sastrekin diseinatu eta herriko jostunek jostea. Beraz, aktibitate kulturalen bultzatzaileak, parte hartzaileak eta hartzaileak herri bertako biztanleak izan behar dute; eta garapen kulturalaren proiektua endogenoa izan dadin ezinbesteko baldintza da parte hartzea eta zuzeneko herri kulturaren kudeaketa. Eta garapen kulturala eman dadin ezinbestekoa horretara bideratutako programak behetik gora diseinatzea. Beste hitz batzuetan esanda, «balkoiko politikatik» herriko politikarako saltoa egin behar du udalak. Udalak, bere batzordeetako ateak irekiak uztea ez da nahikoa, ezinbestekoa da herritarren inplikazioa eta herritarren onarpena lortu nahi bada balkoitik kalera jaitea. Honek ekarriko baitu herritarrek zein herriko taldeak euren proposamenekin kaletik Udaletxeko balkoira igotzea.

## *2.2. Anoetako taldeak koordinatu beharra: kultur errota*

Kultur adierazpideak herriarentzat bideratuak izan daitezten, herritarrek subjektu izan behar dute. Horretarako, ezinbesteko tresna aipatu den parte hartze politika da. Eta parte hartze prozesu hori herriko erakunde, talde eta herritarren arteko elkarlanarekin bultzatzen da. Helburua, herrian pentsatuta egindako kultura, herrian sortutakoa eta herriarentzat egina sortzea bada, denen koordinazioa ezinbestekoa da.

---

55. Ibidem.

Kultur espazioa errotaren funtzionamenduaren metafora kognitibogisa hartuko dugu: honela, herriaren gustu eta nahiaren arabera ogia eskaintzeko, labore-aleak birrindu, hauek irin bihurtu eta ogia egiteko ezinbesteko tresna da errota. Eta errota martxan jartzeko, lehenik eta behin, ur korronte handia behar da, errotapean kokatzen den burdinazko turtukia mugitu ahal izateko. Ur korronte hauek egurrezko aldaparoan edo deposituan elkartzen dira. Aldaparoan elkartutako ur bolumenak salto baten bidez turturkia mugiarazteko energia sortuko du. Turtukia biratzean, ezpata edo burdinazko ardatzaren errotazioa gertatuko da. Ondoren, indar hau goiko harriari transmititzen zaio. Finko dagoen beheko harria eta goiko harriaren artean labore-alea sartzen da; mugimendu errotatiboarekin labore alea birrindu egiten delarik. Honela lortu ahal dira ogia eta taloa egiteko gari eta arto irina.

Gauzak honela, herriaren gustu eta nahiaren arabera ehotutako alea lortu ahal izateko ezinbesteko dira turtukia mugituko duen ur-korronte nahikoa, ongi funtzionatuko duen azpiegitura –errota alegia–, eta kalitatezko lehengaia. Eta kultur espazio berrien sorkuntzan Anoetan ondorengo osagaiak erabiliz Kultur-errota mugiarazte-lanak burutu dira:

-*Kalitatezko lehengaia*: erabiltzen diren labore aleak ahalik eta hoberenak izatea eta bertakoa bada, herritarrentzat gustagarriagoa izango da. Bertan erein eta landutako garia bada, ez du globalizazioarekin masiboki zabaldu den gari transgenikoaren inongo inbidiarik. Honela, herri kultur sorkuntza bultzatu da. Gorengo kalitate labelik ez edukiagatik, bertan ekoiztuak.

-*Azpiegiturak*. Hau da, ongi funtzionatuko duten turtuki, ardatz eta errotarriak; errotape sendoa. Eta azpiegiturei dagokionez, Anoetako Udalak baliabide ekonomiko eta pertsonalak ezartzeaz gain kultur egitasmo ezberdinak landu ditu.

-*Energia sortzailea*. Herriko ur korronte guztiak aldaparoan edo ur deposituan batu eta norabide eta norantza berean indar egiten badute, turtukia mugitu eta garia ehotzeko adinako energia sortuko dute; beraz, talde guztien parte hartze eta koordinazioaren alde inbertitu dira energia gehienak.

Anoetan, arlo ezberdinetako erakunde eta taldeak aurki daitezke. Erakunde edo talde bakoitzak urtean zehar bere jarduerak antolatzen ditu eta, ekintza edo kanpaina oso konkrituak izan ezik, taldeek elkarlanean



Anoetako alkate eta zinegotziak San Joan bezperan San Joan zortzikoa herritarrei eskaintzen  
(Arg. Fernando Rojo)

ez dute ekintzarik antolatzen. Ondokoak dira Anoetako talde, elkarte eta erakundeak:

**Anoetako Ikastola:** 2003-2004 ikasturtean 282 ikasle daude matrikulatuak, horietatik 233 anoetarrak. Irura eta Anoetako udalen artean mankomunatuta dago eta kooperatiba da. Ikastolak urtero antolatzen dituen ekintzak: Mendi irteerak (4-5 ikasturtean zehar); Ikastolaren Eguna (kurtso amaieran); Inauterietako festa, Eguberri eta Santa Ageda bezperako eskeak. Herrian antolatzen diren zenbait ekintzatan ere hartzen du parte. Kirol arloko eskolaz kanpoko ekintzez gain Bertso Eskola ere antolatu ohi du.

**Anoetako Gazte Asanblada (AGA):** Herriko 30 gazte inguruk osatzen dute, nagusiki 15-22 urte bitartekoak. Gaztetxean biltzen dira; 1998an Anoetako udalak atondu zuen gaztetxea eta gaur egun bien artean lokal uzte hitzarmen bat dago. Bere helburuak gazte aisialdi alternatiboa eta gazte-problematika lantzea dira. Gazte Asanbladak urte askotako ibilaldia du eta, urteetan gora-beherarik izan badu ere, Anoetan oso sustraitua dago. Gazte Asanbladaren inguruan osatu den sareak Anoetako gazteen esparru handia hartzen du, eta Gazte Asanbladaz kanpoko hainbaten

inplikazioa ere lortzen du zenbait ekintzatarako. Kultur espazio berria sortze bidean pieza inportantea izan da. Gazte Asanbladak antolatzen dituen ekintzak: kontzertuak, Gazteen Eguna herriko festetan, antzerkia, bertso afaria, gaztain-erre jatea, umeentzako jolasak, lehiaketak (futbola, musa, euskal tribial...)

**Alkartasuna jubilatuen elkarte.** Herriko jubilatuen elkarte da, eta udalak utzitako lokal batean elkartzen dira. Arratsaldero elkartu ohi dira arratsaldeko 5etatik 8etara euren aktibitateak burutzeko. Noizbehinka, jubilatuentzako irteerak, hitzaldiak, bazkariak eta bestelakoak antolatzen dituzte. Honetaz gain, herriko jaietan jubilatuen arteko Toka Txapelketa antolatzen dute

**Abraham Peña:** Abraham Olano txirrindulariaren sostengu taldea da. Nahiz eta Abraham Olanok txirrindularitza utzia duen taldearen jarduerak jarraitzen du oraindik. Abraham Olanoren omenezko afariak antolatzeaz gain txirrindularitza lasterketak ikusteko bidaiak antolatu izan ditu nagusiki. Honetaz aparte, Gabonetan Ikastolako ikasleek egindako marrazkien erakusketa edo herriko jaietan urtero egiten den txirrindulari lasterketa antolatzen parte hartzen dute.

**Anoetako AHT Gelditu plataforma.** Dozena bat inguru eragile dituen herriko hainbat taldetako kidek koordinatzen duten plataforma. Abiadura handiko Trenak Anoetan eragingo dituen kalteez informatu eta mobilizazioak antolatzeaz gain, ingurugiro eta naturarekin zerikusia duten hainbat ekintza antolatu izan dituzte, baita bertso bazkari, erakusketa edo herriko nekazarien azoka.

**Elkarkidetzeta Plataforma.** 1998ko otsailean sortu zen plataforma honen partaideak ondokoak dira: Anoetako Udala, Anoetako Herri Ikastola, Mugarik Gabeko Farmazeutikoak, Indigenen Aldeko Mugimendua, Copihue eta egun desagertuak diren Sendotza eta Ziripot taldeak. Plataformaren helburuak elkartasuna bultzatuaz herriaren sentsibilizazioa eta justiziaren alde herriaren konpromisoak lortzea dira, karitatea alde batera utziz. Plataformak antolatu ohi dituen ekintza nagusiak bidezko merkataritzaren lanketa eta Gurasordetzeta kanpainak dira.

**Txolarre Kultur Elkarte.** Eskualdeko euskaltzaleek osatutako taldea, zeinak Txolarre Irratia sortu eta bultzatzen baitu. Irrati honek 2000. urtetik emititzen du (FM 107.5) Tolosaldeako ia herri guztientzat. Lokala Anoetako Udalak utzitakoa du. Goizetan kazetari profesionalak burutzen dute saio programatua eta arratsalde gauetan eskualdeko herritarrek

prestatutako saio libreak emititzen dituzte. Urtemugan kultur ekintzak ere antolatzen dituzte.

**Kuku Elkarte:** 84 gizon eta emakume bazkide dituen elkarte gastronomiko kulturala da. Bazkideei eskainitako aktibitate eta ikastaroez gain, elkarte honek batik bat pilota bultzatzen du. Besteak beste, herriko jaietan Pilota Txapelketa, 4 r' erdi barruko esku pilota txapelketa eta paleta gomazko txapelketa antolatzen ditu. Honetaz gainera, herriko festetako txupinazo egunean sardina-jatea prestatzen dute.

**Ateaga Elkarte:** 75 gizonezko osatutako elkarte gastronomiko kulturala da. Emakumeen sarrera baimentzen badute ere ez dute emakumezko bazkiderik onartzen. Herriko Festetan sagardo dastatzea, mus txapelketa, txokolatada eta «bakailoa saltsa berdean» txapelketa antolatzen dituzte.

**Anoetako Kantu Taldea.** Egituraketarik ez duen taldea izanik ere, egun konkretuetan kantatzera atera ohi den herritar ez profesional ez osatua; gutxi gorabehera hogeita bost herritarreko taldea. Santa Ageda bezperan eta Eguberri bezperan duela hamar urtetik atera ohi dira. Anoetan Santa Ageda bezperan kantari ateratzeko ohitura duela berrogei bat urte galdu zenez, ohitura berreskuratzeko sortu zen. San Joan bezperan duela sei urtez geroztik atera ohi dira kantatzera.

**Loatzo Musika Eskola.** Udal musika eskolak 1987an sortu eta 2001-02 ikasturtea arte eskaini zituen bere zerbitzuak. 2002-2003 ikasturtean Loatzo Musika Eskola mankomunitatea sortu zen, Anoeta izan zelarik bultzatzaileetako bat. 2003-2004 ikasturtean ondoko herriek osatzen dute mankomunitate hau: Anoeta, Larraul, Aduna, Zizurkil, Ibarra, Villabona eta Alizo. Guztira 473 ikasle daude mankomunitatean, eta haietatik 88 dira anoetarrak. Loatzo Musika Eskola oso sustraitua dago herrian, eta antolatzen dituen ekitaldiak ondokoak dira: kalderero festa, umeen danborrada herriko festetan, Santa Ageda bezperako kantuak eta hainbat kontzertu.

**Udal dantza eskola.** Bi taldetan banatutako 19 ikasle daude. Herriko festetan Dantzari Txiki Eguna antolatzeaz gain Kalderero festan eta hainbat herritako Dantzari egunetan parte hartzen du.

**Udal Pilota eskola.** 5 taldetan banatutako 59 ikasle daude, gehienak anoetarrak. Herriko Festetan umeen arteko Pilota Txapelketa antolatzen du

**Ziripot aisialdi taldea.** 2000. urtean desagertu zen aisialdi talde hau. Talde honetan 10-12 urtetako gaztetxoak zeuden. Hauen begirale herriko boluntarioak ziren. Larunbatero elkartzen ziren arratsaldeetan elizaren lokal batean jokoak edo beste hainbat ekitaldi egiteko, bideo-forumak... Horrez gain, herrian zehar hainbat ekitaldi antolatzen zituzten: errege kabalgata, inauterietan kalean zehar dantzatuz kalejira batean atera ohi ziren edo herriko festetan play-backa. 2003. urtean Anoetako Udalak Larunbaplan egitasmoa jarri zuen martxan, larunbatetako gaztetxoan aisialdiko hutsunea bete nahian.

*Kultur errotrak* auzolan kulturala abian jartzeko balio izan badu, elementu bakoitza sistema batean integratzen delako balio izan du, osagai bakoitzak beste askoren oihartzuna dakarkigulako: erlazio bakoitza beste erlazio metafora delako, amaierarik gabeko ihesaldi batean, herritarren harreman sareak berrelikatuz. Finean, Anoetako kultur turtukia birarazteko talde guztien korrante txikiek energia handia sor dezakete.

### *2.3. Euskara: Anoetarren identitate zeinua*

Orain artean aztertu den Anoetaren bilakaera historikoan ondoko abiapuntua landu da: urteen joanean herritarren komunitatea eta elkarlana herriaren garapenean ezinbesteko bi kontzeptu direla. Bestetik, bi konstante hauek kontuan hartu behar dira ezin kultur espazio berriren sorkuntzan. Eta espazio berrien sorkuntza horretan komunitateak urteen joanean mantendu duen identitate ikurra adierazletzat hartu izan da Anoetan: euskara.

Jon Sarasuak era metaforikoan dioen bezala, euskararen herriaz hitz egitean bi plano bereizi behar ditugu: *aitaren etxea* (proiektu politikoa, botere territorialaren plano) eta *amaren sua* (hizkuntza komunitatea, nortasunaren plano). Eta euskaldunok, euskaldun bezala (*ez euskal hiritar* bezala, hori plano territoriala baita) su horietako baten eramaileak gara. Su hori da eskuz esku, itzali gabe, historiaren iluntasunetik hona transmititu den euskararen sua. Bere hitzetan, etxeak, egituraketa politikoak, asmatu baino lehen, su hori bazen. Su horrek ezagutu ditu mila etxe, mila egitura politiko; etxe horiek erori dira, baina gure suak bizirik dirau.

Beraz, zer da euskara? Guzti hori bizi eta bizirik jarraitu duen komunitate horren memoria. Memoriaren ondarea, ondarearen memoria. Bizitzeko gogoarekin eta eragin guzti horiekin etengabe sortzen eta

aldatzen doana. Eta gu, gaur egungo anoetarrok, historia horretako parte gara, hizkuntza hartu dugu, aldatzen dihardugu eta gure eraginaren arabera, hurrengoei pasatzeko ahalegina egiten saiatu gara *kultur errota* martxan jarriaz.

### 2.3.1. Anoetarren ohiko hizkuntza

Anoetarren hizkuntza gaitasun eta erabilerari dagokionez, oso bilakaera positiboa izan dute azken hogeitertan bi adierazle hauek. Anoetan<sup>56</sup> hamar lagunetik zazpi (%72,3) euskaldunak dira. %9,8 elebidun hartzaileak dira, hau da, euskaraz ondo hitz egin ez arren ondo ulertzeko gai dira. Erdaldun elebakarrak %17,9 dira, hots, euskaraz batere ez ulertu eta hitz egiten ez dutenak. Hizkuntza-gaitasunaren bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da 1981etik 1996ra bitartean euskaldunen portzentajeak 15,4 puntu igo izatea. Hamabost urte hauetan erdaldun elebakarren portzentajeak 14,8 puntu egin du behera.



Adinaren araberako hizkuntza gaitasunari dagokionean, Anoetan euskaldunen proportzioa nagusi da adin guztietan. Gazteen artean batez ere, euskaldunen portzentajeak asko egin du gora 1981-1996 tartean (ia bikoiztu egin da portzentajea). Aipatzekoa da gaur egun 14 urte azpitik erdaldun zaharrik ez izatea.

Anoetan, euskararen kale erabilera % 60.9koa da (1993koa %59koa zen).<sup>57</sup> Gehien hitz egiten dutenak haurrak eta gazteak dira, %82 eta %63 hurrenez hurren. Bestalde, azpimarratzekoa da gazteen erabilera herriko batez bestekoaren gainetik dagoela. Gutxien erabiltzen dutenak helduak eta adinekoak, maila bertsuan, adinekoen ezagutza maila helduena baino ia 20 altuagoa izan arren. Generoari dagokionez, gizonezkoek joera

56. Gaur egungo daturik ez dagoenez, 1996ko datuak aztertuko ditugu. [www.eustat.es](http://www.eustat.es)


57. Euskararen kale erabileraren neurketa. SEI elkartea. (2001eko urriaren egindako neurketa).



handiagoa dute euskaraz hitz egiteko emakumezkoek baino (12 puntu gehiago; adierazgarria). Aldagaii dagokionean, haurren presentziaren eragina adierazgarria da erabileran: haurrak tartean daudenean erabilerak nabarmen egiten du gora eta erabilerak nabarmen egiten du gora haurrak mintzakide direnean ere: alegia, haurrek beraien artean hitz egiten dutenean edo helduekin harremantzen direnean.

Anoetan kalean neurtutako erabilerak erraz gaintzen du espero daitekeen erabilera maila, isotropiakoa.<sup>58</sup> Erabilera isotropikoa %43koa da, eta honek herriko euskaldunen trinkotasuna zein leialtasuna altua dela adierazten du. Hau da, alde batetik herriko euskaldunak trinkoturik bizi dira, gehienbat beraien artean harremantzen direlako. Honela, egunerokoan euskaldunek euskaldunekin hitz egiten dute erdaldunekin baino gehiago. Bestetik, herriko euskaldunen leialtasuna oso altua da, eta ondorioz, euskaldunen arteko elkarrizketak ia beti euskaraz dira. Bi arrazoi hauek euskararen erabilera estatistikoki espero dena baino altuagoa izatea ekarri du.

SEI Elkarteak sorturiko Begira tresna erabiliz, ondorengo da datozen urtetan euskararen ezagutzak zein espero daitekeen erabilerak hamar urtetan herrian izango duen bilakaeraren prospekzioa Datu guztiak laburbilduz, euskara Anoetako ohiko hizkuntza dela ondoriozta daiteke.



58. Ezagutza datuak aplikatuz kale erabileraren prospekziarako erabiltzen den funtzioa. Alvarez Enparantza, José Luis «Txillardegí»: *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*, SEI.

### 2.3.2. Komunitatearen ikur

Honela mintzo zitzaion Wilhelm Humboldt oraintsu berrehun urte, 1801. urteko gutun batean, Markinan ostatu eman zion Jose Maria Murgari:

«Euskal Herria da nik ikusi dudana herri bakarra non kultura intelektuala eta morala benetan herrikoia baita, non gizarteko lehendabiziko eta azkeneko klaseak ez baitaude banatuta amildegi izugarri batez [...] Han zinez eta benetan ikusten da nazio bat, kemena ikusten da han, mugimendua, herritarren masatik datorren nortasun nabarmena».

Euskal herriari buruzko pertzepzio horrek bazuen zerikusirik Europako hizkuntza zaharren(etariko)aren egiturak Humboldti sortzen zion lilurarekin; haren ustez, hizkuntza bakoitzaren barne egitura hizkuntza hori mintzo den herri edo nazioaren bereizgarria da, eta egitura horrek eraginik badu hiztunen munduarekiko ikuspuntua moldatzeko orduan. Eta bizikizun horren espiritua hizkuntzak gordetzen zuen. Humboldtten ustetan, gure bizitzeko erak eta hizkuntzak bazuten elkarren arteko lotura ezkuturik. Euskara zen gure identitate bereizgarria, urteetan anoetarrek ahoz-ahoz komunitatearen adierazle bezala gorde sinboloa da.

Jose María Jimeno Juríok<sup>59</sup> euskararen historiaren inguruan zioenez,

*«de ser la lengua natural y propia, considerada la primitiva y hablada en la mayor parte del país, se pasó a situaciones de abandono, desprecio y represión más o menos encubierta. Marginada, identificada con el sector social y económicamente menos favorecido».*

Gonzalez Ollek euskararen eta gaztelaniaren historiaz dioskunez:

*«A mi entender, la situación sociolingüística del reino navarro debía ser ésta: Frente a una población mayoritaria, rural, formada por labradores y pastores, o artesanos y servidores en las villas, de habla vasca, analfabeta, existía un estamento minoritario dirigente, romanizado, urbano (inicialmente al menos, sería preferible decir palaciano y cenobial), de nobleza y clerecía (en el sentido medieval de este término) y, en menor grado, militares subalternos y comerciantes, bilingües, cuyos modelos culturales la escritura entre ellos eran de origen latino».*

Koldo Mitxelenak ere ez zuen ezkututzen euskararen historia sozial tamalgarria. Bere hitzetan, euskara etxe barruko hizkuntza izan da, latinarekin edo gaztelania-frantsesarekin lehiatzen saiatu ez dena. Hau da,

---

59. Jimeno Jurío, José María. Navarra, Guipúzcoa y el Euskera. Siglo XVIII. Pamiela.

laborari edo kulturarik gabekoen hizkuntza. Eta Anoetan ere nekazari eta artzainen hizkuntza euskara zen, hala ondoriozta daiteke nekazarien arteko ezkontza hitzarmen eta ahalordetzetan azaltzen diren euskarazko hitz solteetan edo Jimeno Juríoren idazkietan.

Alabaina, bada azken urteetan aitzinean aipatu euskararen banaketa sozial hori zalantzan jartzen duenik. J. M. Floristánek<sup>60</sup> 1595-98 bitarteko hogeii euskarazko gutun argitaratu zituen. Horietako bat Nafarroa Behe-reko ahaide nagusi batek, Karlos Lüküzekoak, Espainiako errege Felipe II.aren gorteko goi funtzionario bati igorria, hango egoera politikoaren berri emanez. Beñat Oihartzabalen ikerlanetan garbi ondorioztatzen da sasoi honetan euskara ez zela soilik baserritarren edo apaizen hizkuntza, eta Iparraldeko goi noblezia ere euskalduna zela. Hegoaldean ikuspegi ezkorragoa izan dugu. Halere Julio Caro Barojak azpimarratu zuen Austria etxeko erregeen zerbitzura zeuden goi funtzionario euskaldunen kopuru handia, ondokoa gaineratuz:

«Sin duda, todos estos guipuzcoanos metidos en “cosas de pluma”, hablaban con frecuencia en vascuence, que, en casos, podía ser muy bien considerado como lengua secreta: de secretarios».

Kontuan hartzekoa da ere, Azkue Bibliotekako zuzendariak<sup>61</sup> dion bezala:

«Lüküzeko jaunak euskaraz idazten bazuen Madrilen norbaitek ondo baino hobeto ulertzen ziolako zela, eta norbait hori ez zen atezaina edo garbitzailea. Norbait hori idiakeztarren bat izan zitekeen. Leinu gipuzkoar honetako adar biren hiruzpalau kidek zituzten goi-goi mailako ardurak Felipe II.aren gobernuan. Adibidez, Joan Idiakenez erregearen idazkaria eta Estatuko kontseiluko burua izan zen urte askoan; gaur egun ministro deituko genioke».

Hainbat adituen ustez Euskal Herrian jaiek behintzat hitzez ez zeukaten ahaztuta euskara, baina lan literarioak edo historikoak gaztelaniaz idazten zituzten. Elkortasun horretan badira salbuespen batzuk, 1592an Joan de Idiaquezek Esteban de Garibay Felipe II.aren kronista ofizialari euskarazko atsotitzen bilduma bat osatzea eskatu zion. Ez bat, baizik bi bidali zizkion honek, gaztelaniazko itzulpena gaineratuz.

---

60. Floristán Imízcoz, José Manuel, Conflictos fronterizos, espionaje y vascuence a finales del siglo XVI: 20 documentos inéditos. *Fontes Linguae Vasconum*. 63. zb. 19993ko maiatza-abuztua.

61. Gartzia, Pruden. Larrea Burgos baino hobe, Toledoren kidea. Berría: 2004-04-08.

Guzti honekin zera ondorioztatu daiteke, euskara anoetar nekazari eta nobleen, bertako komunitatearen identitate bereizgarria eta urteetan anoetarrek ahozko transmisioaren bidez gordetako memoriaren ondare dela. Ondarearen memoria. Honela, herriko ezein kultur espaziotan etengabeko konstantea behar duen adierazlea. Euskara Anoetako berezko hizkuntza da, herritarrek egunerokotasunean darabiltena eta ofiziala dena Anoetan, lehentasuneko indarrean dagoen udal ordenantzaren arabera.

### 2.3.3 Hizkuntza gutxitua

Alabaina, euskara Euskal Herriaren identitatearen ezaugarri nagusietakoa izanik ere, bigarren mailako hizkuntza da Anoetan, hizkuntza gutxitua, bai gizarte erabilerari dagokionez zein herritarrek euskararekiko duten babes juridikoaren aldetik. Anoetako herritarrek gaztelania ezagutu eta bizitzaren alor guztietan erabiltzeko eskubidea bermaturik duten bitartean, muga nabarmenak aurkitzen dituzte euskara bizitzaren alor guztietan erabiltzeko, alegia euskaraz bizitzeko.

Egoera hau ez da sortu anoetarrek nahi izan dutelako, mendeetan zehar euskaldunen gaineko botere politikek eragin izan duten bazterketek, euskara desagerraraztea helburu izan delarik. Anoetako herritarrek euskarari eutsi dioten arren, hizkuntza gordez, erabiliz eta garatuz, kalte nabarmena jasan dute norbanako gisa nahiz herri gisa, gure herriaren identitatearen ezaugarri nagusia desagertze egoeran jarri dutelako.<sup>62</sup>

Gaur egun euskaraz bizitzeko baldintza objektiboak ez dira oso onak, euskara eta euskal kulturaren kontrako baldintzak medio: legeak, dekretuak, agindu bereziak, irakaskuntza-planak... den-denak euskara desagerraraztea zuzendutakoak. Baina bada indar bat euskara iraunarazi duena.

«Indar horiek euskararen aldeko ekimen askoren atzetik sumatu izan ditugunak dira, gehienetan herri-mugimenduen itxura hartu dutenak, eta, laburbilduz, gure herriaren barneko indar subjektiboak direnak, baldintza objektiboetara aurreratu direnak. Mugimendu horien guztien azpian eta abiapuntuan erabaki subjektiboak baitago, euskaldun bizitzeko asmoarena, erabaki pertsonala izanik ere, nagusiki erabaki kolektiboak dena.»<sup>63</sup>

---

62. Errazkin, Mikel. *Anoetako udalean eta udalerrian euskararen erabilera sustatu eta normalizatzeko arauak ematen dituen udal-ordenantza*. Sarrera. Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 131. zbk. (2003.07.11)

63. Etxebarría, J R eta Zalakain, J M.: *Subjektibotasunaren garrantzia euskararen biziraupenerako*. Kilmetroak 98-Jakin 107. (1998ko uztaila-abuztua).

Indar subjektibo horiek Anoetan ere elkartu dira, Ikastola sortze bidean, Bai Euskarari kanpaina burutzean, Egunkariaren itxieraren aurkako erantzunean...

Mendeetan zehar, herri batzuek beste batzuk menperatzeak kultura eta hizkuntza ere menperatzea ekarri du, berdin antzinaroko inperioetan nola estatu-nazio aro berriagoan ere. Politika horien ezaugarri konstantea izan da menperatuen hizkuntzen ordezkapena, hizkuntza, izan ere, herrien nortasunaren ardatz nagusienetarikoa baita. Dinamika horiek gaur egun ere gertatzen dira; Euskal Herria eta euskara horren lekuko nabarmen dira.<sup>64</sup>

XX. mendean zehar, batik bat euren identitatea defenditu beharraren kontzientzia hartu duten herri menperatuen presioaren eskutik, hizkuntza eskubideen inguruko formulazioak gorantz joan dira, bai nazioarteko legerian eta bai burujabetasun maila bat izanik euren hizkuntz politika arautu ahal izan duten herrien legerian. Hizkuntza eskubideak zapalduta sentitzen dituzten herriak, zor zaien eskubidea aldarrikatu eta garatzen saiatzen ari dira.

Bartzelonako Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala<sup>65</sup> garapen horren lekuko eta mugari da aldi berean, hizkuntza komunitate arteko berdintasun printzipioa aldarrikatzen eta pertsona, hizkuntz talde zein hizkuntz komunitate ororen eskubideak bermatzeko karta formulatzen baitu. Karta hori, hizkuntzen arteko gatazkak konpontzeko bidea ez ezik, euren eskubideen kontzientzia hartzeko tresna eraginkorra ere bada hizkuntz eskubideak urrututa dituzten herrientzat. Deklarazio honetan bost printzipio agertzen dira: identitatearen ezaugarri den hizkuntzaren biziraupen eskubidea; hizkuntza komunitateen arteko eskubide berdintasuna; hizkuntza gutxiaren errekuperazioa ziurtatzeko eskubidea; herrien hizkuntza lehentasunezko izendatzeko eskubidea eta norbanakoaren hizkuntza eskubideak.

Anoetan herritarren arteko harreman sareak bultzatze prozesuan, esan bezala, euskararen normalizazioa abiapuntua izan da. Hizkuntza, urteetan herritarrek gorde izan duten identitate zeinua izanik ere, gaur gaurkoz euskara hainbat gizarte funtzionatik baztertuta baitago. Gauzak honela, Anoeta 2010ean bizigune euskalduna izateko bidean helburu

---

64. Udalbiltza. *Euskal Herriaren Hizkuntz Eskubideen Karta*.

65. [www.unesco.org](http://www.unesco.org) eta [www.behatokia.org](http://www.behatokia.org) web orritan eskuragarri.

nagusi ezarri zituen Euskara Batzordeak ondoko helburuak: lehen zehaztu diren Euskal herritarren hizkuntza eskubide indibidualak eta kolektiboak babestea; entitate publiko eta pribatuen erabilera publikoak euskaraz izatea eta euskararen aldeko giro soziala indartzea. Guzti hau herritarren partehartzea eta indarrak bilduz, gizarte eragilean inplikazioa bultzatuz, inplikazio soziala eta instituzionala batuz eta erabaki-gune partehartzaileak sustatuz.

Hizkuntza biziberritzea, Joshua Fishmanen RLS (Reversing Language Shift) teoriaren jomuga zera da: gero eta larriago dabilen hizkuntza ahulak hitzun gehiago izan ditzala, eta horiek gero eta jardungune, harreman-sare eta egoera ugariagoetan hizkuntza horretan egin dezatela.<sup>66</sup> Normalizazio prozesua gizarte ohituren aldaketa izanik herritarren aldeotasuna beharrezkoa da. Aldeotasun hau herritarrek gertu sentitzen dituzten ekintzek laguntzen dute, beraz Kultur espazioaren beste abiapuntu bat da.

Aldeotasuna lortzeko baitan, hizkuntza baten normalizazioaren gakoa gune sinbolikoa osatzen ikusten du Txepetxek. Gune sinbolikoari dagokionez, ordezkapena hizkuntza komunitatearen kanpo aldean hasi eta gunea hizkuntza berriaz betetzen denean gertatzen da. Gunerik gabe gelditu diren osagaiak –hiztun solteak edota talde soziolinguistikoak– beste gune berri batek erakarri eta bere inguruan hasiko dira jiraka, hizkuntza ordezkatzailaren gunearen inguruan. Era berean, hizkuntzaren iraupena, Txepetxen ustez, gune sinbolikoaren kalitate, indar eta gaine-rako hitzunengan eragiteko ahalmenaren araberakoa izango da:

*«La defensa del propio idioma, sobre todo si éste es minoritario, y no goza de las garantías de un estado (y a veces aun a pesar de estas garantías), está íntimamente ligada a la existencia de un grupo consistente de hablantes que desde ese idioma tenga una concepción cultural propia de ellos mismos y la proyecten hacia la comunidad idiomática...».*<sup>67</sup>

Menpeko hizkuntza gutxiagotuen normalizazioa lortzeko, bi erronka nagusi daude: hizkuntzaren ezagutza bermatzea eta hizkuntzaren erabilera hedatzea. Gauza jakina da, hizkuntzaren ezagutza bermatzeko bide eraginkorrena hezkuntza-sistema dela; hala ere ezin da ahaztu populazio handi bat hezkuntza-sistematik kanpo geratzen dela. Beraz, garrantzi

66. Fishman, Joshua. *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Multilingual Matters.

67. Sánchez Carrión, Jose María «Txepetx». *Un futuro para nuestro pasado. Claves de la recuperación del Euskara y teoría social de las lenguas*. Gipuzkoako Foru Aldundia.

handiko eremua dugu helduen irakaskuntza eta bigarren hizkuntzen jabe-kuntza-prozesua. Bestalde hizkuntza-normalizazio erabatekoa izan dadin, erabilerari erreparatu behar zaio. Gauzak honela, euskararen jabe-kuntza prozesuan, bigarren hizkuntza modura, motibaziok eta erabileran identitateak dute garrantzia,<sup>68</sup> identitate etnolingüistikoak alegia.

### 3. Kultur espazio berriak

Kultur espazio berri horien antolakuntzaren abiapuntua *Bai Euskarari* kanpaina jar genezake, 1998ko udazkenean. Anoeta, Ibarra, Irura eta Tolosako ikastolen artean *Kilometroak 98* antolatu berria zen, Gipuzkoako ikastolen aldeko festa. Anoetar askok, alor ezberdinetan, lan ezberdinak jorratu zituzten auzolanean. Ondoren, Kontseiluak izaera nazionaleko Bai Euskarari kanpaina antolatu zuen. Eta herriko gizarte eragileei euskararen normalizazioan konpromisoak eskatu eta Euskal Herriko bost futbol zelaitan burutu zen ekitaldia bultzatzeko *Anoetako Bai Euskarari Batzordea* osatu zen, herriko eragile ezberdinekin. Bertan gauzatu auzolanak segida behar zuela eta hainbat ekitaldi antolatzen jarraitu zen, errotariaren biraketa gera ez zedin. Honela, *Apellidduak abizendu* kanpaina edo Mikel Markezekin *Euskal kantu Ikastaroa* antolatu ziren.

Gerora, 1999ko abenduan Anoetako Udalak UEMAn (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatean) sartzeko asmoa, herritarren euskaraz bizitzeko berrespenarekin lotu nahi izan zen, honela, herritarrak erabaki horren parte sentitu zitezen jaialdi bat antolatu zen. Alde batetik Udala herrira jaitsi zen, osoko bilkura pilotalekuan eginez, ondoren herriko eragile ezberdinen kultur adierazpen modu desberdinen emanaldia antolatuz. Hemen eman zen *kultur errota* biratzen jartzeko salto kualitatiboa.

#### 3.1. Bertso-antzerkia

2000ko herriko jaietan, bertso-gintza, musikagintza eta antzerkigintza uztartuz Anoetan bertso antzerkia egin zen lehenengo aldiz. Hurrengo hiru urteetan hasitako urratsari bere izaera finkatu zitzaion. Emanaldi mota honetan bertsoak dira oinarria, eta alde zurretik herriko antzerki-zale batzuk jarritako gidoia, ildoan Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak

---

68. Arratibel, Nekane; Azurmendi, Maraiia-Jose eta García, Iñaki. *Menpeko hizkuntzaren bizi-kemena*. UEU.

ohikoa ez den lana egiteko konpromisoa hartu zuen, antzezpenerako bertsoak idaztea hain zuzen ere, bere estiloa galdu gabe bertsoak anoetarren gustukoak eta esanahiez betetzea. Eguneroko bizimodua islatzen duten gaietatik abiatu da bertso antzerkia, bertsolariak bere barnean neurriekin, errimarekin eta doinuarekin jolastuz entzuleak asebetetzen ditu, gaiari erantzun eta bertsoak sortzen ditu, bertsoa pertsonengandik gertuago bizitzea da Anjel Mari Peñagarikanoren estiloa, herrikoia eta xumea. 2002. urtean, hainbat bertso Bertso Eskolako kideek paratu zituzten.

Ekintza desberdinetan partehartzea ezinbestekoa da gure ingurua-  
rekiko lotura mantentzeko, gure herriaren bilakaeraren eragile izateko; eta jokaera pertsonalistak nagusitzen ari diren garaian, jatorrian herriak zituen komunitate baloreak berreskuratzea, azken batean auzolan kulturalaren gurdibidea jarraitzea izan da helburua. Globalizazioa eta kultura estandarizatuak zabaltzen ari den une honetan, gero eta garrantzitsuagoa da beren nortasuna galdu nahi ez duten pertsonen eta herrien partehartzea eta protagonista izateko nahia. Lau urte hauetan bertso antzerkiarekin adin eta jarduera desberdineko anoetarrok elkartzeko eta partehartzeko aukera eskaini dugu. Oso aipagarria da, bere ibilera laburrean, Anoetako festetan lortu duen erreferentzialtasuna, herritar askorentzat herriko jaietako ikono nagusia bilakatu delarik. Anoetan kultur sorkuntzaren historia txikian oso gutxitan bete bada Anoetako pilotalekua, bertso antzerkiak lau urtetan lortu du.

Auzolan kultural honetan Anoetako Musika Eskolak paper garrantzitsua bete du. Lehen edizioan bertso antzerkian lantzen zen gaiarekin erlazioa zuten kantak eman zituzten, hau da, bertso antzerkiaren osagarri funtzioa bete zuen. Urteetako bilakaeran Bertso antzerkian parte hartze zuzenagoa izan du, 2003ko edizioan, jada ikuskizunaren barnean, bertso-musikatu-antzeztuak taularatuaz; diferentziak diferentzi bertso-zarzuela moduko bat taularatuaz.

### *3.1.1 Bertso antzerkiko kultur errota*

Aurreko kapituluan esplikatu den azalpen kognitibo metaforikoa erabiliz, herritarren komunitate identitatea eta harreman-sareak indartzeko herriak ehotutako lehengaiak erabiliz kultur espazioa landu zen Bertso antzerkian. Herritarren gustuko ogia jateko, uzta jaso eta kultur errota martxan jartzeko elkarlana behar da, auzolan kulturala. Auzolan horren beharra identifikatu eta herritarrei auzolanerako deia egiten ziena Udala izan zen, azken batean, herritarrek hautestontzien bidez udal





Bertso antzerkiko pasarte bat, herritarren artean sortutako kultur emankizuna.

ordezkariei esleitzen die-eta duten betebeharra. Auzolanerako deia jaso ondoren, hiruzpalau *itzain* edo idien norabide-erakuslek hartu zuten uzta jaso eta herritarren artean errota mugiarazteko lanak koordinatzen hasteko egitasmoa.

Itzain hauek herriko idiak (herrian duen kultur energia, herri-onurarako lan egiteko borondatea) herri-bideak erabiliz kultur errotara gari bete gurdi eramanarazten saiatu ziren. Aurreko atalean aipatu dugun bezala, herriak bere gustuko ogia jan dezan, lehenik irina lortu behar da. Irina lortzeko, labore-alea, garia, ehotu behar da. Eta kalitateko irina lortzeko, *kultur-errotak* behar bezala lan egin dezan ezinbesteko hiru osagai ditu.

-*Kalitatezko lehengai*a, eta bertakoa bada, herritarrentzat gustagarriagoa izango da. Bertan. Bertso antzerkiaren kasuan, bertakoek burutu zituzten gidoi, bertso, kantu, antzezpen eta zuzendaritza lanak. Gorengo kalitate labelik ez edukiagatik, bertan ekoiztuak.

-*Azpiegiturak*. Hau da, ongi funtzionatuko duten turtuki, ardatz eta errotarriak; errotape sendoa. Eta azpiegiturei dagokionez, Anoetako Udalak baliabide ekonomiko eta pertsonalak ezartzeaz gain, Anoetako Herri Ikastolak entseatzeko lokalak eta Kuku Elkartek antzezpen

egunean emankizunera antzezle guztiak giro epelean joan zitezten afaria prestatu ohi zuen.

-*Energia sortzailea*. Herriko ur korrante guztiak *aldaporoan* edo ur deposituan batu eta norabide eta norantza berean indar egiten badute *turtukia* mugitu eta garia ehotzeko adinako energia sortuko dute. Anoe-tako bertso antzerkiaren kasuan, bertako gizarte erakunde edo taldeetako kideek egin zuten energia sortzaile lana. Bertso antzerkiko edizio bakoitzean, era batera zein bestera 80 bat pertsonak parte hartu izan dute: antzezle, musikari eta antolatzaileez gain, zeharka lagundu duten guztiak. Lau urtetan, gutxi gorabehera 150 pertsonak hartu dute parte.

### 3.1.2 *Eszenaratzea*

Bertso antzerkiaren egiturari dagokionez, *performance*-tzat sailka daiteke, hau da, antzezpen, emanaldi gisa. Aurretik idatzitako bertsoen bidezko kontakizun teatralan. Bereziki keinuketa edo gestikulazioa landu ohi da, umorearen erregistroan antzeztan delako, komedia guztietan bezala, imintzioak exageratzen saiatu izan gara; azken batean, mimoa eta bertsoa elkartzen. Herri kulturaren barnean, hasieratik bukaeraraino herriar ez profesionalek, bertsolaria izan ezik, sortu eta taularatu, oholtza lehen aldiz zapaldu izan duten aktoreek osatua. Herritik abiatua, herriak egina eta herriarentzat zuzendua den kultur adierazpen modu ezberdinen multzoa. Eszenaratzeari dagokionez, Zuberoako pastoralarekin antzekotasunik badu, lehen emanaldia antolatzerakoan pastoralaren iturritik edan genuelarik. Alabaina, pastoralaren sinbolizaziotik oso desberdina da. Zuberoko pastoralean,<sup>69</sup> *phastualean*:

«Herri baten bizitza kontatzen da. Kontakizun teatrala da, bertsetez kantatua, eta gorputz-mugimendu bitxiak erabilia antzeztua. Pastoralak egitura errepikakorrek erabiltzen ditu, egituren estetika eta sinbolika erlijiodunak erabiliz. Pastoralaren eszenifikazioan kristau-irakatsi moralak zein giro historiko-politiko ezberdinak bat egiten dira. Pastoralak antzeztutako bizitza etsenplua edo imitatzeke eredu da. Pastoralaren heroiak kristoren irudi salbatzailea bete behar du, eta hala saiatzeagatik jasotzen du bere saria: zeruko atea zabalik aurkitzea. Bertan, turken eta kristauen arteko borrokak antzeztan dira; epikaren bidez ongiaren eta gaiztoaren arteko lehia sinbolizatzen da. Mezu moralak zabaltzeko bidea izateaz gain, mezu politikoak ere bideratzeko gai da pasterala».

---

69. Fdez de Larrinoa, Kepa. Pastoralaren güdika eta jeia. Eusko-Folklore urtekaria (2001-02. 43. alea.).

Zuberoko pastoralak eta Anoetako Bertso antzerkiak eszenaratzeari dagokionez, duten beste antzekotasuna zera da: Biak herritarrak, Anoetako eta Zuberoko komunitatea azken batean, identifikatzen dituen errepresentazio kulturalen espazioak dira, non bizitza soziokultural eta ekonomikoaren sinbolo edota ideei estereotipoen osatuta baitauden; honela herritarrak identifikatzea lortu nahi da. Herritarren identifikazio gradu horren gurdibidea ondoko bidezidorrekin irekitzen egin da saiakuntza: lehen aipatu den antolakuntza herritarra, emanaldiaren gaien hurbiltasuna, baliabide poetikorik gabeko hizkera errazaren erabilpena, hau da anotako *itzeitako* modua eta umorearen erregistrodun mezu errazen erabilpena. Beraz, Zuberoko pastoralak eta Anoetako bertso antzerkiak duten ezberdintasun nagusia sinbologiaren aldetik dute.

Anoetako Bertso antzerkia bertsolaritzaren historian, antolatu den gisa honetako lehen emankizuna izan da. Gerora antolatu direnak antzekoak izanik ere, badute desberdintasunik. Ezberdintasun handienak ondokoak dira, alde batetik Anoetako aurrez idatzitako bertsoekin burutu izan dela, eta beste kasuetan aldiz inprobisatuak izan direla kantatutako bertsoak. Beste ezberdintasun nagusia, Anoetako bertso antzerkia testuinguru lokal batean burutu bada, beste saiakerak testuinguru transprobintziale-tan gauzatu direla. Honela, bigarren kasu honetan, bertsoak audientzia heterogeneoago bati zuzenduak izan dira, ez dira Anoetako segmentu sozial ia homogeneoari bideratuak. Honela esperientzia berri horiek ez dute lortu Anoetako publikoak sentitu duen gertutasunik. Alabaina Anoetako bertso antzerkiak bakarrik eta soilik Anoetako publikoari begira balio duen bezala beste emankizunek herri, lurralde, errealitate sozial edo adin talde ezberdinetako publikoaren aurrean taularatzeko egokiak dira. Bertsoaren estetika ezberdina da bata zein bestean, Anoetako kasuan ia eduki literarioak gabea eta bertako hizkeran oinarritua den bezala, beste kasuan, eduki literarioa ia poetikoa bilakatzen da eta hizkera estandarra erabiltzen da. Anoetako bertso antzerkia erreferentzia lokalez asebetea badago, beste herrietan burututako esperientzietan erreferentziak probintzialak edo nazionalak izan ohi dira. Azkenik profesionaltasun eta aurrekontuko zenbakien zero kopuruak ere bereizten ditu bertsoa protagonista duten bi esperientzia desberdinak.

### *3.1.3 Bertso antzerkiaren gertutasuna*

Aitzinean aipatu bezala, bertso antzerkia herritarrengandik gertukoa izan dadin ondoko adierazleak erabili izan dira: emanaldiaren gaia oso

hurbila, erreferentzia lokalen erabilpena, baliabide poetikorik gabeko hizkera erraza, herritarrek darabilten hizkera arrunta edo erregistro kolokiala eta mezu errazen erabilpena umorearen erregistroan. Guzti hau adin talde edo gizarte talde ezberdinetako kideak gertu sentiaraziko diren ñabardurekin. Ondokoa izan da, gaiaren bilakaera lau urteetan:

-Lehen edizioan, gai nagusian Anoetako jaiak ziren. Eta agerraldi ezberdinetan herriko festetako hainbat pasarte antzetzuz: jaien haserako kukuaren jaitsiera; parrandan gazteen arteko *ligatze kontuak*, gaupasa egin duten eta mezetara doazen zaharren eta ume eta gurasoen arteko aferak eta festen amaiera irudikatzen duten garbitzaileak.

-Bigarrena, baserri eta kaleko gaietan banatu zen. *Behi eroak*, baserriaren egoera, anorexia, zaborren arazoa eta birziklapena, komunikazio falta.

-Hirugarrenean, Trena gai nagusitzat hartuta; AHTak sortuko duen hondamendi naturala, egungo bizimoduaren erritmo azkarra eta gazteen arazoak (etxebizitzaren prezioak, ekimenetako parte hartzea, festetako kontsumoa)

-Laugarrenean, azken hiru belaunaldietan Anoetaren bilakaera, nekazal bizimodutik kaleko bizimodurako aldaketa, herriko aldaketa fisikoak aipatuz.

Gaiaren aukeraketan gertutasuna lantzen den bezala, bertsoak idazterakoan gertutasunaren konstantea ere kontuan hartzen da, hainbat erreferentzi lokal erabiliaz.<sup>70</sup>

*... ez zegoen orduan  
orain aina tailer  
ez Opel ez Orbinox  
ez Renault ez Winkler...*

*Eleni andereño  
Joxe Alkiza apaiz  
beti platano jaten  
ibiltzen zan Iraitz...*

70. Bertso antzerkiko bertsoak Anoetako Kukulore liburudendan eta [www.anoeta.net](http://www.anoeta.net) webgunean daude eskuragarri.

Mezu errazak erabili izan dira, bat-batean mezuak helarazteko helburuarekin: Adibidez aitak semeari kantatzen dioena:

*Zuen gusanitoak  
ta pelotazoak  
zuen Lays zorroak ta  
Pokemon tazoak  
ontzian behar dute  
lurretik jasoak  
behingoz konpon ditzagun  
zabor arazoak.*

Umorearen erregistroa ondoko bertsoan ikusi daiteke: Adb intseminazio artifizialaz kezkatzen den behi baten aldarrikapen bertsoa:

*Konjelatutako haziari  
jarri behar ipurdia  
leku ederrean geratu zaigu  
gure hoitabialdia.*

Zaharrentzat gertuak diren bertsoak berriz, Adb apaizaren sermoia:

*Len irakurri dizuet zuei  
pulpito gainean zutik,  
Jesukriston Evangelioa  
San Markosen liburutik;  
zenbat pekatu egiten dan gaur  
ezin det kendu burutik,  
neska-mutilei sarri eskuak  
ihes praka zirrizkutik,  
kontuz ibili begira dago  
Aita San Pedro zerutik.*

Umeen gertutasuna adierazten dutenak:

*Ama autotxoketan  
txoke nabi det egin  
txoke eginda ere  
ez dute hartzen min,  
ibiltzeko dirua  
emaidazu jolin!*

Edo eguneroko bizimoduan sarri erabili izan ohi diren topikoak:

*Pantani ta Pantano  
Gil eta Klemente  
zertaz dakizue ba  
kirolaz aparte?  
Gizonezko guztiak  
berdinak zerate!*

Baserriko bizimodua ikusi daitekeena:

*Baserri baten berdinak dira  
negua eta udara,  
euri hotzetan arbitara ta  
berotan belarretara,  
hau bada gero bizimodua,  
txarra edozein modutara,  
baten batekin Benidorrera  
banoa oporretara.*

Edo gazteen bizimodua, selektibitatea dela-eta gazteen elkarrizketa:

*-Hamar liburu zazpi karpeta  
ta besapean hirurehun txuleta  
-Nik enpoilatu arren Descartes  
bera deskartatu nire kaltez  
-Hi hola ta ni!  
alfa kosinu ph ta pi  
azkenerako dena enepe.*

Ikusten denez, herritako adin talde eta gizarte segmentu ezberdinetako herri-identitatea lantzeko bat batean identifikatuko dituzten baliabideak erabiltzen izan dira.

### ***3.2. Barrikada***

Anoetarrek altzürükütarrekin elkarlanean *Barrikada* izendatu genuen emankizuna antolatu genuen 2002ko azaroan. Ekitaldia maskaradaren sinbolizazioa zuen bi herritarren kultur adierazpen ezberdinen erakustaldia izan zen, bide batez bi herriak kulturalki gerturatzeko zubi kulturalak eraiki ziren.

Maskarada Zuberoan, neguan ospatzen den festa erritual bat da, nekazal testuinguruan. Bertan dantza antzerkiarekin lotzen da. Zuberoako Maskaradak antolatu nahi dituen herriak dantzari on ugari behar du,

herriaren ohorea jokoan baitago. Hogei lagun inguruk parte hartzen dute. Behin antolatuz gero, herriz herri igandero ibiliko da; normalean urtean herri bakar batek hartzen du bere gain ardura hori sinbologiari dagokionez, Juan Antonio Urbeltzen<sup>71</sup> interpretazioan «maskaradan, izurritearen ordena eta haren ondoriozko kaosa eta gizarte desegituraketa bata bestearen atzetik doaz».

Kepa Fdez .de Larrinoaren<sup>72</sup> hitzetan, Maskarada antropologiak definitu dituen *dance-event* (dantza gertakizun) eta *performance* (antzezpena, emanaldia) aktibitate erritualen multzoan koka genezake. Dantza gertakizun kontzeptuari dagokionez, dantza; kantua, musika, jokoak, erlijio ospakizunak eta jaialdi ludikoekin batera jazotzen den aktibitate errituala da. Bestalde, antzezenari dagokionez, forma ikuspegitik, maskarada antzerki eszenaratze zikliko eta ibiltaria da. Maskaradetan bi pertsonaia mota daude: *gorriak* eta *beltzak*. Gorriak jende zintzoa, ona da; bere gain daude dantza ikusgarrienak. Beltzak, aldiz, gorrien aurkakoak dira: gaitztoak, zikinak, lapurrak, gezurtiak, andrekarriak, ardozaleak.

Gorrien taldea ikuspegi tradizionalak onartutakoa da, bertako kideek ordena, kultura eta zibilizazioa errepresentatzen dituzte. *Entseiaria*, *jauna*, *anderea*, *laboraria* eta *laborarisak* tokian tokiko gizarte egituraketaren ikuspegia errepresentatzen dituzte. *Zamalzaina*, *txerrieroa*, *gathuzaina* edo *kantiniersa* pertsonaiek, aldiz, giza eta animalia ezaugarriak konbinatzen dituzte. Horiek horrela, gorrien taldeak naturaren elementuak (animali basatiak) eta kultur elementuak (ikur politiko garrantzitsuak dituzten pertsonai sozialak) eszenaratzen ditu. Batzuek eta besteek, zirkunstantzia edo pasartearen baitan, batera edo banatuta jarduten dute.

Beltzen taldeari dagokionez; *txorrotxak*, *khereztuak*, *buhameak* eta *khauterak* ogibide ibiltari eta talde etnikoak antzezen dituzten pertsonaia dira. Mugikortasun geografiko handiko aldikako ogibideekin lotu izan diren judutar, ijito edo buhameak, biarnesak eta beste talde etnikoak arriskutsuak bezala hauteman izan dira. Ez dira Zuberoako giza antolamenduaren sistemarekin bat etortzen, nahiz eta beren jarduerak tokiko bizitza munduarentzat ezinbestekoak izan.

---

71. Urbeltz, Juan Antonio. *Euskal dantza. Sinboloen inguruan*. Etor-Ostoa

72. Fdez. de Larrinoa, Kepa. «De los límites y las transgresiones rituales. Fiestas de carnaval, danza tradicional e identidad social», in *Fronteras y puentes culturales. Danza tradicional e identidad social*. Pamplona.

Maskaradaren emankizuna bi zatitan banatzen da, goizean *barrikada haustia* burutzen da, arratsaldean aldiz maskaradaren antzezkizuna.

### 3.2.1 *Barrikada haustia*

Goizean goiz abiatzen dira dagokien herrira eta han, dantzan etxez etxe ibiltzen. Lehen oinez, jakina, joan behar zuten eta zain zeuden bertakoak, barrikada bat eraikita; herrira sartzea *oztopatu* egiten zuten, dantza eta sasi borroka zenbaiten ondoren, *barrikada haustia* lantzen zuten. Maskarada burutzen den herrikoak *–errezibitzaileak–* hasi ohi dira dantzan, ondoren *maskarakaiak* edo maskarada bisitariak jarraitzen dutelarik. Hauen hasierako lana herritarrek ezarritako oztopoa, barrikada, saihestea izan ohi da. Nahiz eta gaur egun *barrikada* hau ardo botilak izan, garai batean benetako oztopoak ziren, enborrez eta harriz sortuak.

Pertsonai gorriek barrikada hautsi ostean, pertsonai beltzen txanda da, oso era berezian gainditzen dutelarik oztopoa: gorriak inguratuz, korrika eta oihuka, elkarren gainean botata amaitzen dutelarik. Ondoren txorrotxen txanda da, zeinek bertsoak botatzen baitituzten. Barrikada hautsi ostean, ekitaldia burutu den etxeokoa jan-edanak eskaintzen dizkie partehartzaileei. Barrikada haustea herriko lekuri esanguratsuenetan errepikatzen da, azkena herriko agintarien aurrean burutzen delarik.

Esan bezala, *Barrikada* bezala izendatu genuen emanaldi hau altzürükütarrekin elkarlanean antolatu zen. Altzürükü, Arbailetan kokaturiko 47,12 km<sup>2</sup>-ko Zuberoako komuna edo udalerrria da. Nafarroa Beherearekin mugakide den herri hau Zuberoako hirugarren herririk handiena da hedaduraz eta 254 biztanle ditu. Udalerrri honetako aktibitate ekonomiko nagusiak nekazaritza eta abeltzaintza dira, abeltzaintzan artzaintzak duelarik garrantzirik handiena. Altzürükük 2002ko udan bertako seme zen Urruti jauregiko Peirot süjeta edo gaitzat zuen pastoralara eman zuen. Honetaz aparte Altzürükük maskaradak antolatzen tradizio handia du, azkena 1992an antolatu zuten.

Anoetarrek, altzürükütarrekin, Barrikada deitu genuen ekitaldia antolatu genuen. Bi herrien Kultur adierazpen modu ezberdinen trukea zen ikuskizun honek *barrikada haustiaren* sinbolizazioa geure eginez. Beti ere ñabardurez gaindi altzürükütar eta anoetarrentzat euren identitate eta herri kulturaren erakusle. Barrikadaren sinbolizazioak abiapuntu-tzat bereizketa sozial bat izanik, barrikada haustian, bereizketa soziala gainditu egiten da, barrikada edo oztopoaren bi aldeetako jendea elkartu egiten da. Azken finean, Anoetan burututako ekitaldiarekin ideia hori





Altzürükütarrak Anoetako gaztetxe parean lehen barrikada haustia gainditzen  
(Argazkia: Fernando Rojo).

lortu nahi zen, oso desberdinak diren bi segmentu sozialak, Anoeta eta Altzürükükoak, elkartzeko zubi kultural bat eraikitzea.

Zubi kultural horiek eraikitzeko Altzürükü eta Anoetako herri kulturen adierazpen modu ezberdinak batu ziren, Anoetako bost lekutan barrikadak gaindituaz. Goizean plazatik kalejirarekin hasi zen festa, xirüla eta ttuntunaren soinuaz lagundurik. Lehen barrikada Anoetako Gaztetxean gainditu zen. Lehenik, Gaztetxe kanpoan Altzürüküko dantzariak barrikadako dantzak eskaini ostean Anoetako Gazte Asanbladako kideek, Gaztetxe barruan ikurrin-dantza dantzatu eta ekitaldi sinboliko batez erantzun zuten. Hurrengo barrikadakara Anoetako txistulariekin kalejira burutu zen

Bigarren barrikada Kuku elkartearen kanpoan gainditu zen. Altzürüküko dantzariak euren dantzak burutu ostean Udaberri Dantzari Taldeko bost dantzariak, horietatik bi anoetarrak, zuberotar dantzekin erantzuna burutu zuten. Kuku elkarteak hamaiketako eskaini ostean, Anoetako trikitilariekin hurrengo barrikadara kalejira burutu zen.

Hirugarren barrikada Ikastolakoa izan zen. Bertan Ikastolako ikasleen

eta Anoetako dantza eskolaren artean antzerki emankizun bat eman zen. Berau maskaradan sinbolizatzen diren bi segmentu sozialak, gorriak eta beltzak, ordena eta desordena, oinarrিতa burutu zen. Jarraian plazarako kalejira Altzürüküko xirülari eta ttuntunlariekin burutu zen.

Laugarren barrikada. Altzürükü eta Tolosaldeako dantzariak *godalet* dantza eman ostean, Anoetako Alkate eta zinegotziek San Joan zortzikoa eta herriko gazte talde batek agurra dantzatu zuten. Udalaren harrera ostean, herriko pilotalekuan herri-bazkaria izan zen.

Bostgarren barrikada. Anoetako Musika Eskolakoek musika emanaldia ostean, Altzürüküko herritarrek euren kantak abestu zituzten.

Barrikada honek erantzuna izan zuen, 2003ko neguan Sohütako *maskaradakaiak* Altzürükün *errezibituak* izan zirenean anoetarrak gonbidatuak izan baikinena Maskarada ikustera.

### 3.3 Dantza soka

Anoetan, kultur espazio berrien sorkuntzan beste ekimen bat *dantza-sokaren* berreskurapena izan da. Dantza-soka, hainbat dantzaren multzoa da, garai batean nekazal munduko gizartean funtzio sozial nabariak zituen. Anoetarren komunitate ikur zen dantza hau 50eko hamarkadan galdu zen Anoetan. 2003ko udaberrian, herriko gazte koadrilen ekimenez berreskuratu zen. Dantza hau, XXI mende hasiera honetako gizartearen hainbat baloreekin berreskuratu da.

Lehen aztertu dugun baserri ingurunearen eta bizimodu tradizionalaren baztertzeak hainbat jai edo festa tradizionalen osagai askoren galera ekarri zuen. Anoetan, horren adibide ditugu San Isidro edo Korpus eguneko ospakizunak. Dantza edo herrian sustraitutako erritual ugari, fase berri batera pasa ziren, bertako jai edo festa ikuspegitik desagertuz edota egitura murrizketa garrantzitsuak jasanez. Prozesu horren adibide izan zen dantza-soka.

#### 3.3.1 Iragana: Dantza-soka bizimodu tradizionalaren ikur<sup>73</sup>

Lehen esan den bezala, Dantza-soka hainbat dantzaren multzoa da. Bertan ondoko dantzak egiten dira: Desafioa edo Aurrez aurrekoa; Axeri dantza, alpargata edo esku aldatzeko soinua; Agurra; Zortzikoa bat, aurrekuak inprobisatu behar duena; Fandagoa, Arin-arina eta biribilketa. Soka

---

73. Rojo, Fernando eta Errazkin, Mikel. Dantza-soka Anoetan. Anoetako Udala. [www.dantzan.com](http://www.dantzan.com) helbidean eskuragarri.

honen protagonistak aurreko eta atzeko dantzariak dira, aureskularia eta atzeskularia, Anoetan *aurre-aitziak* izenez ezagutuak. Dantzaren une konkretu batean, zubia egiten da, azpitik dantzari guztiak igaro behar dutelarik; honen esanahia onarpen sozialarena omen da, hau da, pertsona gizartean onartua bazen, soka ere onartuko zuten; aldiz, izen txarrekoa bazen, sokatik bota egingo zuten. Historikoki zabaldueña mutilena izan da, hauetan mutilek dantzatzen zituzten aipatutako dantzak eta neskek dantzatuak eta omenduak izaten ziren.

Izenei dagokienez, aurkitu den izenik zaharrena dantza-soka izan arren, beste hainbat modutara ezagutua izan da. Adibidez, esku-dantza, soka-dantza, erregelak (Bizkaian), edo Iztuetak jaso zituen gizon-dantza, galaien esku-dantza, neskatxen esku-dantza eta etxe-andre dantza; dena den, Euskal Herrian zabaldu eta hedatuena auresku izena dugu.

Jatorria eta interpretazioari dagokionez, modu ezberdinetako esanahiak aurkitu izan zaizkio dantza sozial honi. Zaharrenetarikoa Gorosabel historialari tolosarraren izkribuetan irakur daiteke, honek dantza-soka gudarekin harremanetan ezartzen zuen; bertan aureskuak eta atzeskuak desafioa dantzatzeko garaia bi buruzagien arteko erronkatzat ulertzen zuen. Ondoren, garrantzia emakumeari ematen hasi zitzaion; jada bi dantzarien arteko erronkak ez zuen garrantzirik, eta bakoitzak plazan zein emakume aukeratzen zuen agurra eskaintzeko. Nahiz eta Iztuetak jaso zuen bezala (1824) herriko alkateek dantzatzen zuten, 1918az geroztik (Oñatiko Eusko Ikaskuntzen lehen kongresuan Gipuzkoako Diputatuek dantzatu zuten) oso dantza protokolaria izan da XX. mendean zehar. Azken urteetan, antropologoek (esate baterako Urbeltz) beste ikuspegi bat eman diote, gazteek gizartearen parte izateko sarbidea, hau da, helduen komunitatean parte hartzen hasteko erritua. Ukaezina da, gaur egun, dantza-soka, gure arbasoengandik jasotako ohitura eta erritua betetzen ondo pasatzeko aukera dela, eta baita komunitate edo giza-talde baten identitatearen agerpena ere.

Hasiera batean, igande eta jaiegun guztietan dantzatzen zen, eta dibertimendu eta qizon-emakumeen harremanetarako aukera paregabea zen. Plazatik bi dantzari irteten ziren, gerora bi hauen artean nahi zuena sartzen zihoan; denen artean soka osatzen zutelarik. Ohitura hau galdu egin zen. Eta gaur egun ohikoena herri bakoitzaren zaindariaren egunean dantzatzea da. Halere, egun puntaletan dantzatua izan da: Kongresuak, Euskal jaiak, inaugurazioak... Gaur egun, dena dantzatu

ordez, protokoloetarako agurra soilik dantzatu ohi da. Horregatik, agurrari aureskua deitzen zaio.

Juan Garmendia Larrañaga<sup>74</sup> etnografo tolosarrak jaso ditu garai bateko Anoetako San Joan jaiak, Sarobe eta Tolaretxe –gaur egun Modestoenea izenez ezagutua– baserrietatik entzunak. Bertan aipatzen denez, dantza-soka Anoetako jaietan hiru aldiz dantzatzen zen; San Joan egunean meza nagusiaren ondoren eta arrats partean; eta San Joan hirugarrenean bestea, ekainaren 26an alegia.

Azken egun honetan, goiz osoan zehar baserriz baserri oilasko biltzea egiten zuten, oilaskoak makila batean zintzilik eramaten zituztelarik. Bazkalostean, arratsaldeko lauretan, *ollasko-jokuba* egiten zen: oilasko hiru makilei lotua ezarri eta dantzariak zortziko bat inprobisatuaz bertara hurbildu eta ezpataz lepoa moztzen zion oilaskoari. Oilasko hauek afaltzeko arrazoi izango ziren. Tarte horretan egiten zen Aureskua. Auresku honetan lehen dantzariak *piparerroskilla* bat zeraman eskuan eta sokara ateratzen zuten lehen emakumeari emango zion opari gisa. Juan Garmendia Larrañagak<sup>75</sup> jaso duenez, San Joan eguneko egun txintan lizarra eta elorria jartzen ziren ateetan. Haur negartiak norbaitek begizkoa egin zielako izaten zirela horrelakoak uste izan omen zen, eta horregatik San Joan egunez Anoetako San Joan ermitara eramaten omen zituzten. Eta San Joan bezpera ilunabarrean, Udalak herrikoei ardoa eskaintzen zien herriko plazan; eskaintza horri zahagi-ardo esaten zitzaion. Urteetan ohitura hau kontzejuan betetzen zen, orain Udaletxeko arkupeetan burutzen delarik.

50eko hamarkadan, hau aurrera eramango zuen dantza talde bat sortu zen. Urte askotan, taldearen arduraduna Manuel Odriozola izan zen. Policarpo Olano, Iruratik etortzen zena, ibili zen irakasle moduan. Taldea 16 mutil izatera iritsi zen, eta hauek egiten zuten dantza-soka San Joan eguneko meza nagusi ostean. Dantzari hauek nabarroz jantzita irteten ziren, hau da, zuri-gorritz. Garai honetan dantza honek harreman handia izan zuen Tolosan San Joan egunez ospatzen ziren batelekin. Izan ere, Guadalupeko Anoetako langileek hainbat bandera eskuratu zituzten garai honetan. Arraunlari hauei herrira itzultzean taldeak dantza bitartez

---

74. Garmendia Larrañaga, Juan. Solsticio de Verano.

75. Garmendia, Juan eta Mendiguren, Xabier. Hiztegi Etnografikoa. Ikastolen Elkarte.



Dantza-sokako pasarte bat, aurrekularia omenduari agurra dantzaten  
(Argazkia: Fernando Rojo).

eskaintzen zien ongi etorria. 60eko hamarkadan, herriko jendea Tolosara joaten zenez, batelak ikustera, jaien eguna Korpusera igaro zen; jaiekin batera dantza-soka.

San Joan egunez gain, ikasitako dantzak, batik bat Bizkaiko ezpata dantza, hainbat lekutan dantzatu ziren. Besteak beste, 1952ko abuztuaren 30ean Anoetako Escuelas Nacionalesen inaugurazioan, bertara Luis Carrero Blanco Ministroa eta Caballero Ahaldun Nagusia etorri zirelarik; Donostiako Txofreko zezen plazan, Euskal jaialdi erraldoi batean, beste 15 talderekin batera (itxuraz Falangeak antolatutakoa); 1962 inguruan Tolosako San Joanetan Bordon dantza eta aurrekua, tolosar dantzariek Udalarri planto egin eta gero.

### *3.3.2 Berreskurapena: balore berrietara egokitutako tradizioa*

2003ko otsailaren 22an, hainbat aldiz galdu den ohitura zahar hau berreskuratuko zen herriko gazteen ekimenez. Dantza hau garai berrietara egokitu da, besteak beste, datuz aldatu eta inauteri garaira pasa da. Gainera, emakumeek beren espazioa propioa izan dute. Berreskurapen honetan iraganeko memoria, orainaldiko zirkunstantziak eta etorkizunean sustraitua izateko proposamenak bateratzeko lana egin da. Honela, herritarren arteko apurketa kulturalaren sentimena ekidin nahi izan zen.

Berreskuratze prozesu honetan, kultura tradizionalaren forma batzuen balioak hartu dira. XIX mendean Anoetan harreman-sareak aldatu ostean galdutako festa berriro erritualizatu nahirik, harreman-sareen aldaketek pairatuarazitako deskontestualizazioak gaindituz. Esan bezala, baserri ingurunearen eta bizimodu tradizionalaren baztertzearan gizartea aldatu egin zen. Sistema kulturala ez da berdina, ezta balore sozialak ere. Honek guztiak festa edota dantza egoera sozial berrira egokitzea dakar. Adibidez, gaur egun festa ugari asteburuetan ospatzen dira, egungo lan ekintzek ez baitute zaindari santuez ulertzen, tradiziozko dispositibo sinbolikoez, garai bateko sistema erlijiosoaren kausa-ondorio harremanez, etab. Unerako harreman giro sozial bat bilatzen da.<sup>76</sup> Bizitza tradizionalaren ikur den dantza ikuskizun bilakatzen da.

Dantza-soka San Joan egunean, Anoetako zaindariaren omenezko egunean, dantzatzen bazen ere, inauteri garaira egokitzea erabaki zen. Alde batetik, lanaren antolaketak asteguneko ospakizun bat jai egun batera aldarazten duelako. Anoetako gazte guztiak ez dute San Joan egunez jai egiten. XIX. mendeko gazte anoetarrentzat San Joan egunak ez du XX. mendeko gazteen sinbologiarik. Eta etorkizunean ere, ohitura hau sustraiarazteko asmoarekin *kalderero* egunera igaro zen festa hau. Honela, dantza honek gaur egunean duen helburua, gure arbasoengandik jasotako ohitura eta erritoak beteaz, errazago lor daiteke herriko gazteen harreman-sareak sendotu eta azken finean ondo pasatzea inauterietako testuinguruan. Arbasoen ohiturak islatzeko asmoarekin, goizean Anoetako baserriak zeharkatuz kalejira egin zen, hauetan *axeri-dantza*, eta *fandago* eta *arin arinak* dantzatzuz.

Quijerek dioen bezala, gaur egungo gizartean folkloreak dituen betebeharren artean garrantzitsuena eusten duen komunitatearen idiosinkrasia adieraztearena da, hau da, pertsona baten izaera berezia, besterengandik bereizten duena adieraztea. Egundak ez dira kontutan hartzen betebehar sinboliko-erlijiosoak, jai giroa eta dantza galdu baitituzte. Herrialde baten kultura tradizionalak eta bere espresio bideek, arlo edo maila guztietan, egungo kulturaren homogeneotasun egoeran, bere identitate ikur karismatikoa definitzen dute. Egoera teknologikoaren aurrean, denak era berean aurkezten dira. Arautik desbideratzeko aukerak

---

76. Quijera, Jose Antonio. *Folklore ikerketaren etorkizuna: erronkak eta beharrak*. XV Congreso de estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoa. Eusko Ikaskuntza.

urriak dira. Baina folkloreak bere bizilagunen aurrean desberdintzearena eskaintzen du, «beste modu batean» adierazten direnak.

Antzina, gauzak bere ondorioetan oso antzekoak izan dira, nahiz eta motibazioetan ez hainbestekoak izan. Folklorearen kultura tradizionalaren espresio bide bat izan da, naturala edo arrunta esan dezagun. Berak bakarrik, batzuk eta besteak identifikatu ditu. Motibazioek izaera desberdinetako sustrai sozial eta erlijiosoak zituzten. Gaur egun, folklorearen bidez desberdintzea bilatzen da, beste norabidekoa dena. Ez da nahikoa folkloreak identifika gaitzan, egin dezan behar dugu eta horretarako eginkizun hori bultzatu eta bideratzen dugu.

Herritarren harreman-sareak bultzatu eta *herritar* berrien identifikazio berriak sortze bidean hau ez da Anoetan folklorea erabili lehen aldia. 90eko hamarkadan, Anoetako Udaleko alkate eta zinegotziek San Joan bezpera egunez San Joan zortzikoa dantzatu zuten bi urtetan. Gerora, 2000ko San Joan bezperaz, ekitaldi hori berreskuratzea erabaki eta oraindik jarraitzen dute udal ordezkariak herritarren aurrean dantza hori egiten.

Dantza-sokaren gaurkotze horretan beste alderdi garrantzitsua emakumeen espazioarena zen. Fernando Rojoren<sup>77</sup> hitzetan, dantza tradizionalan emakumeak bere toki propio normalizatu zuen, baina azken gizaldietan folklorea eta bereziki dantza gaizki ikusarazi duten hainbat kanpo-eraginek eta historian zehar emakumeak jasan behar izan duen bazterketak herri kulturaren islatu du emakumeen espazio murriztu dantza tradizionalan.

Euskal Herriko bizimodu tradizionalan emakumezkoaren papera gaur egungo gizarte teknologikoan ematen denarekiko desberdina izan da. Beraz, dantzarekiko ere desberdina izaten ahaleginak egin dira. Berreskuratze prozesuan, jai giroaren eta dantzaren moldaketak aldaketetara eramaten gaitu, hauei esker emakumeak ere bere paperari irtenbide bat eskainiz, ez mundu tradizionalan, baizik eta bizimodu modernoan. Egituren aldaketan pareko egoera ematen ez bada ere, paper hori eskatzen da dantza-sokan, dantza aldarrikapen esparru batean bihurtuz.

Emakumea oraingo «etxetik mundurako irteera» honetan, lehen neurri handi batean galaraziak zituen lekuak hartzen hasia da. Emakumea bere pertsona-eskubidetik kulturara hurbiltzen ari da; lehen arlo hau

---

77. Rojo, Fernando. *Emakumea euskal dantza tradizionalan*. Euskonews & Media. (1999.01.22/29).

askotan ukatu zitzaion. Une honetako aukera kultural askoren jabe dira emakumezkoak, batez ere benetan hautabidekoak direnean, ez dantza bakarrik. Aldarrikapen foro bihurtzen dira, eskubide eta beharren adierazpenarekin batera.<sup>78</sup>

### 3.4. *Anoetarrak, kukuak*

Herritarren identitatea lantzean, Kukuaren ikurra asko hedatu den sinboloa da Anoetan. Kukua herritarren errepresentazioa da. Euskal Herrian eta Tolosaldean bereziki, oso ohikoa da herrietako biztanleei ezizenak ezartzea: Amezketakoak euliak, Alegiakoak txintxarriak... eta Anoetakoak kukuak. Kukua, beraz, euskarazko tradizionalki ahoz aho jaso den eta izendapenerako erabili izan den izengoitia da. Ahozko literaturaren lekukoa. *Cuculus canorus* izeneko hegazti hau ugaria da gure lurraldean; eta, ahozko literaturak jaso duenez inguru honetan Anoetan egiten ditu lehen ku-ku hotsak, horregatik inguruko herrietan anoetarrak kukuak izenarekin gara ezagutuak. Lehen kuku hotsak Osintzulo eta Basagain mendi inguruan entzuten omen dira, Goibailaran.

Neguko loalditik udaberriko susperraldira dagoen urratsa ezin hobeto agertzen digu kukuak,<sup>79</sup> kukuaren kantuak, eta hutsik egin gabe egiten digu bisita martxoaren bukaera aldera «*Kukuak Andre Mari Martxoazkotan kuku...*» eta gurekin igarotzen du udaberria «... *ta San Pedrotan mutu*» (martxoaren 25etik ekainaren 28ra, herri jakintzaren esanetan). Normalean Europan bizi bada ere, Hegoafrikara joaten da negua igarotzera eta handik etortzen da, lehen esan bezala, udaberriko lehen egunetan, 9.000 km egin ondoren, gauez, eta beste hegazti migratzaile askok ez bezala, bakarrik. Izua da oso eta hegan egiterakoan izutasun hori islatzen du, oso era berezian egiten baitu hegan, gabiraiaren antzeko hegakera du; halere, oso zaila da hegan ikustea. Aditu aditzen bada ere, nekez ikusten da, 30 bat zentimetro luze, gaina eta paparraldea gris urdinxkak ditu, azpia zurixka, marra ilun batzuk ditueta eta isats luzea. Zizareak, zomorroak, eltxoak eta era guztietako harrak jaten ditu, eta gogokoena pinu beldarra edo prozesionaria du.

Gainontzeko hegaztiak ez bezalako ohiturak ditu; hasteko, ez du

---

78. Quijera, Jose Antonio. Folklore ikerketaren etorkizuna: erronkak eta beharrak. XV Congreso de estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikoak. Eusko Ikaskuntza.

79. Saizar, J; Peñagarikano, J; Ubeda, J.A.. Anoetako Jaiak 1996. Anoetako Udala.



habiarik egiten eta arrautzak txantxangorriaren edo beste txori baten habian erruten, jartzen ditu (*Iñudiari arrautza jarri eta kantari dago kukua*), «*Izugarrizko arrautza utzi dio kuku alperrak txantxangorriari*»). Bertako bat kendu eta bat berea uzten dio, antzekoa itxuraz, ama ordea ziriak ohartu ez dadin. Horrela, hamabi bat kabi pasa eta hor bukatzen ditu lanak, ez du beste ardurarik hartzen. Txita, jaio orduko, habian dauden arrautzak edo txitak botatzen hasten da, harik eta bakarrik gelditzen den arte; hala, amaordeak ekartzen duen jaki guztia beretzat izaten da. Hiru bat astetara, kabitu ezinda, inguruko adarren batera joaten da eta beste hiru bat aste pasa ondoren hegan hasteko eta bere kasa moldatzeko moduan izaten da. Gurekin uda pasa eta irail aldera helduen bideari ekiten dio.

Kukua Anoetan oso sustraitua dagoen hegazti bat da, horren erakusle da bere inguruan ahozko literaturan jaso den esaera kopurua. *Kukue aittuit*, esango du batek; *Diruik ba al huan patrikan?*, galdetuko dio besteak; izan ere, kukua aurreneko aldiz entzutean patrikan dirua daukanak urte guztian izango omen du dirua. *Kukuak kuku eta dirua poltsikuan aberatsa aurtenguan*. Kuku hotsak udaberrian entzuten direnez, eguraldi ona datorrenean edo jendeak asmo berriak dituenean, agian kukua entzutearen poz horrekin erlaziona daiteke. Herri sineskeran kukua neguaren bukaera iragarritz, natura berpiztearen aitzindaria da.

Bizitzarekin eta heriotzarekin ere zerikusia ba omen du. Kukua kantatzen hasten denean, *Kuku, zenbat urteko bizia ematen didazu?*, galdetzen omen diote eta kukukadak kontatzen hasten omen dira. *Udaberriko kukua adituko banu; Ea datorren urteko kukua aditzen dudan* eta antzeko esaldiek bizinahia adierazten dute, baina badira bestelakoak ere, *Horrek ez dik udaberriko kukurik adituko; Horrek ez dik kuku soinu asko adituko* esaerek heriotzaren itzal hotza iragartzen dute. Eta ez ahaztu kukua hiltzen duenak suerte txarra izaten duela, izan ere, zoria edo suertearekin ere lotzen baitugu kukua. Norbaiti gauzak nahi bezala edo ondo doazkionean *Horri aurten kukuak jo dio* esaten dugu, baina espero ez bezala doazenean *Horri aurten kukuak oker jo dio* esan ohi da. Asko eta asko geratzen omen dira kuku jota, hau da, porrot eginda. Txikitan ere nork ez du harako *Kuku miku, anda miku...* hura erabili zerbaitetan jolasean hasi aurretik.

*Beste kuku batek joko liguke ere* hor dago, jokamoldea aldarazteko edo zerbaitetan oker ari garela adierazteko; *euskaldunok bat egingo bagenu*,

*beste kuku batek joko liguke. Ume gutxi omen dago; ez da harritzekoa, oraingo gazteek kukuak bezala, bat ekartzen dute eta. Giza-joera ere adierazten digu: batzuek kukutik kukura egiten omen dute lan; beste batzuk kuku hari, kuku honi ibiltzen dira gogaikarri; beste batzuk, berriz, kukumikuka orain agertu, orain ezkutatu. Juan Garmendia Larrañagak<sup>80</sup> jaso duenez, Kukuaren hotsa urte batean lehenengoz entzuten denean: Oin azpiko lurra etxera eramán eta zimitz guztiak hiltzen dira. Urte hartan ez da hilko. Kukua hiltzen duenak zorte txarra izaten du. Antzina nagusi eta morroien arteko tratua honela izaten zen: Kukutik kukura urtea, ehun dukat soldata; baserretu gaitenezanean, uhala ateratzea. Kukua zazpi urtean eskolan ibili eta «kuku» besterik ez omen zuen ikasi.*

Ikusten denez, kukuaren inguruan ahoz-ahoz sineskera asko jaso izan da. Anoetako ereserkian ere, «Gora Anoeta»<sup>81</sup> izenekoan kukuaren aipamena ere nabarmena da:

*Anoeta herria  
ederra bezain zoragarria  
kukuak ku-ku baso ertzetik  
erreka garden, Ernio aldetik  
zeruko intzez bustia  
Uzturre aldetik dator eguzkia  
baso, erreka, mendiz  
zorutzen nauzu egiz  
zuk dezun edertasun haundiz*

1996az geroztik, elizaren kanpandorretik udaletxe aurrera Kukuaren jaitsiera egin ostean hasten dira Anoetako jaiak. Ondoren, haur danborradan lehen abestia, Gora Anoeta ereserkia, kantatu eta danborrez jo ohi dute herriko gaztetxoek.

Anoetarrei kuku ezizena esleitu izana Pello Errotaren Anoetako astoa izeneko ondoko bertsoetan ere garbi ikusten da. 1868. urtean irurar batzuek anoetar batzuekin kartetan jokatu zuten, Anoetan. Partida bat amaitu eta ezin utzi, hurrengoan duro bana jokatzea proposatu zen. Anoetarrak ez zeukan dirurik eta astoa jarri zuen jokoan. Irurarrek irabaztea gertatu zen eta astoarekin itzuli ziren herrira. Irurarrek Pello Errotari gertaeraren berri ematen zuten bertso-paperak sortzea eskatu

80. Garmendia, Juan eta Mendiguren, Xabier. *Hiztegi Etnografikoa*. Ikastolen Elkartea.

81. Letra: Anjel Mari Peñagarikano; Musika: José Luis Ancín.

zioten.<sup>82</sup> Bertso hauetan anoetarrak irrigarri uzteko herritarren identitate ikurra erabiltzen da. Bertso hauetan argi nabarmentzen dira anoetar eta irurarren artean historikoki egon den lehia.

1.  
*lrurogei ta zortzi  
milla zortzireun da.  
Kristo mundura zala  
garai onetan da, ku-ku, ku-ku.*

*Txiste politagorik  
gertatutzen lan da,  
guk nola egin genduben  
Anoetara juanda.*

2.  
*Martxuaren lenengo  
igande onetan, .  
iruratar batzuek  
giñan Anoetan, ku-ku, ku-ku.  
Pelia maiz oi degu  
ango lagunetan,  
arraiskatubak gera  
jokuko lanetan.*

3.  
*Gure jokuba etzan  
izan jolasian,  
azkenerako giñan  
beruen klasian, ku-ku, ku-ku,  
aberi jokatzen  
dirurik ezian;  
astua irabazi  
diyegu musian.*

4.  
*Bost pezetaren prendan  
astua zan jarri,  
jokatuta okerrik  
etzedin etorri, ku-ku, ku-ku.*

*Irabazi ta laister  
Irirara arri,  
kontsuelo txikia  
ez gendun ekarri.*

5.  
*Astua ona dago  
erozeñentzako,  
ernari dago beintzat  
gure iritzirako, ku-ku, ku-ku.  
Orain asto bat eta  
bi maiatzerako,  
beste iru egingo ditu  
oso zartzerako.*

6.  
*Zaldalia jateko  
onak dauzka ortzak,  
arrantzaz ta saltoka  
ortxen dabil pozak, ku-ku, ku-ku,  
atera zaizkiola  
barrunbeko otzak;  
eztauzka egun txarrak  
asto buztan motzak.*

7.  
*Asto manten erreza,  
tranpak badakizki,  
libre uzten bazaio  
soruan da aurki, ku-ku, ku-ku.  
Topatzen dubenetik  
jango du galanki  
esi txarrak badaude  
ezta aren aitzeki.*

---

82. Zavala, Antonio. «Anoetako Astoa», in Pello Errota. *Bizitza, Bertsoak eta Itzala*. Auspoaren sail nagusia. Doinua: «Hirurogei ta zortzi». Dorrnorsoro, Joanito. *Bertso Doinutegia*. Euskal Herriko Bertsolari Elkarte.

Kukua hainbat kanpaina eta udalaren logoetan erabili izan da, herritarren sinbologia bezala. Herrian Kuku izeneko elkarte gastronomiko kulturalaz gain *Kukulore* izeneko liburu-denda ere badago. Azkenik ondoren azalduko den bezala, Anoetako armarrarian kukuak leku garrantzitsua betetzen du.

### *3.5. Anoetarrak errepresentatzen dituen armarri berria*

Anoetako Udalak Aranzadi Zientzi Elkartearekin hitzarmen bat sinatu ostean, azken hau 2000. urtetik hasita Anoetari buruzko ikerketa programa bat garatzen ari da. Beronen helburu nagusia herriak historian zehar izan dituen identitate zantzuen berreskurapena da; herritarren esku jarriaz kultur ondarearen, komunitate-identitatearen eta herriaren iraganaren ezagutza. Hau ez da bi erakunde hauek elkarrekin lan egiten duten lehen aldia, aipatu zientzi elkarte Burdin Aroko Basagain herrixkan azken urteetan burutzen ari den induste-lanetan lagundu baitu Anoetako Udalak. Aipatu herrixka inguratzen duen harresiaren lur eremua Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzaz erosi zuelarik. Herriaren historiaurrea, historia eta kultur ondarea aztertu eta herritarren esku jartzean, Anoetako Udalak gaur egungo herritarren identitatea indartzeko asmoa zuen.

Identitate indartzearen prozesu honetan Anoetako Udalak herriaren ikurra, armarrria alegia, berraztertzea erabaki zuen. Eta herriaren ikur izanik, herritarren esku utzi zuen ordu arteko armarrria herriaren sinbolo bezala mantendu, egungo baloreak armarrriari egokitu edo egungo gizar-tearen isla diren identitate sinboloak dituen gizarte berrituaren ikurra aukeratzea, hau da, armarri berri proposatu eta aukeratzea.

Abiapuntua oso garbia zen: armarrria herriaren eta herritarren erre-presentazioa izanik, herritarrek behar zutela izan hitza eta erabakia prozesu honetan. Nahiz eta gaur egungo legislazioaren arabera armarrrien inguruko erabakien eskuduntza Udal ordezkariena izan, udal gobernu taldeak behintzat oso garbi izan zuen udal osoko bilkuran herritarren bozgorailu izango zela, alegia herritarren borondatearen aldeko hautua egingo zuela.

#### *3.5.1. Herriko zaindariaren ikonografiatik...*

Aipatu den udalerriko armarrriaren argitaratutako testigantzarik zaharrena<sup>83</sup> 1850ekoa da, Madoz politikariarena da. Bertan Anoetako

---

83. Agirre Mauleon, Juantxo. *Udal armarrriari buruzko txostena*. Aranzadi Zientzi Elkarte.

armarriari buruz zera azaltzen du «... *escudo de armas orleado y cubierto con un águila imperial que tiene en la garra derecha cuatro saetas y otra en la izquierda acompañada del arco...*»<sup>84</sup> Aipamen honetan ez da zehazten arranoa motibo nagusia den edo osagarri bezala irudikatzen den. Motibo hau Aragoiko Fernando eta Gaztelako Isabelek zabaldu zuten, euren oinordekoek ere erabili zutelarik. Halere gaur arte ez da motibo hori duen zigilurik aurkitu.



XIX. mende erdialdetik, Anoetako armarriko gai nagusia arkume bat izan da. Liburu gainean, kokatua dagoen arkume honek bere hankapetik abiatzen den gurutze bat sostengatzen du. San Joan Bataiatzailearen ikonografia tradizionalaren isla da, zeina kristau ingurunean oso erabilia izan baiten. San Joan Bataiatzailea Mesiasen, Jesukristoren, etorreraren aurrendari eta berrie-maile gisa irudikatzen da. Pazko arkumea eukaristiaren sakramentuaren errepresentazio da; ebanjelioaren irudiak, aldiz, kristau dotrina, teofania eta agerpenaren edukiak azaltzen ditu. Kristautasunaren hastapenetatik motibo ikonografikorik funtsezkoenatariko bat izan da; honela, historian zehar hainbat errepresentazioetan erabilia izan da: erromatar katakonba, Erdi Aroko kodize eta beatoetan, kapitel erromanikoetan, eskultura barrokoetan etab.

San Joan Bataiatzailea Anoetako patroiz edo zaindaria izateaz gain, herriko parrokia bere omenez eraikia da. San Joan eguneko ospakizunak udako solstizioarekin batera ospatzen dira, ezbairik gabe, historian zehar data garrantzitsua izan da Anoetako nekazal komunitatearentzat. Aurreko atalean ikusi den bezala, Anoetako jaiak 50. hamarkada arte San Joanetan ospatzen ziren eta nahiz eta gaur egun Korpusetan burutu herriko jaiak, San Joan bezpera eta egunean ere hainbat ekitaldi burutzen dira.

Gutxi gorabehera azken 150 urteetan, Anoetako armarriaren motibo nagusia arkumea izan da, 1868tik tintazko zigiluetan dago dokumenta-

<sup>84</sup> Madoz, Pascual. Diccionario geográfico-estadístico-histórico de España y sus posesiones de ultramar. Guipúzcoa. Gipuzkoako Batzarre Nagusiak.

tua. Motibo nagusi hori erramu edo koroen bidez dotoretua agertu izan da. Nagusiki Espainian agintea duten Borboi familiaren Errege-etxearen koroak errematua. Armari horrek azken mende eta erdian, 50 eta 60eko hamarkadetan izan ezik errepresentatu ditu anoetarrak. Bi hamarkada hauetan Aragoiko Fernando eta Gaztelako Joanaren heraldikan inspiratutako armari frankista erabili baitzen. Ikur hau diktadura garaian espainiar bandera monarkiko bezala ere erabilia izan zen.

### 3.5.2. ... *lurraldetasuna, historia eta herritarren irudikapenera*

Behin *armari zaharraren* ikerketa burutu ostean, herritarren artean parte hartze dinamika bat abian jarri zen. Bertan zera lortu nahi zen, herritarren errepresentaziorik egokiena zen ikurra aukeratzea. Eta herritarren sinboloa herritarren parte hartze eta onarpenarekin aukeratu behar zela hobetsi zen. Herritarrak balizko armari berriaren ideiak aurkeztu zitzaizen dinamizatu baziren ere paraleloki Anoetako Udalak Aranzadi Zientzi Elkarteari herritarren identitatea islatzen zuten proposamen gaurkotuagoak egin zitzaion eskatu zion. Aranzadi Z. E.ren proposamenak bi baldintza betetzea eskatzen zen. Lehena, herritarren errepresentazioa izan zedila noski, eta, bestetik, herritarren arteko desberdintasun ikurrak alboratzea. Hau da, genero, sineskera erlijioso edo klase ezberdinen bazterketarik ez irudikatzea. Anoetan jaio edota bizi diren herritarren berdintasun irizpideen arabera, herritar guztiak berdin irudika daitezen ezin noblezia-, monarkia-, erlijio- edo sexu-sinbolorik gabe. Bi balore horiek konstantetzat harturik, ondoko programaketa ikonografikoa burutu zen:<sup>85</sup>

**Oria ibaia eta mendiak:** Lurraldetasunaren errepresentazioa, Anoetaren geografia fisiko eta Naturaren adierazle. Oria ibaia Anoetari buruz existitzen den lehen irudi grafikoan azaltzen da, XVI mende amaierako plano batean. Anoeta Oria ibaiaren inguruan antolatu izan da historian zehar: bere errotentzat energia hidraulikoaren indar iturria izan da, gainera, herriko laborantza ibaiko urei esker garatu ahal izan da. Herrixka muino edo mendi baten gainean dago, eta bere punturik garaiena bat dator armariaren zilborrarekin; mendi-hegalak, berriz, poliki-poliki jaisten dira puntaren ezker-eskuineko ertzetarantz, erliebe biribilduxe eta suabe bat osatuz. Urdin eta zilar koloreak txandakatzen dituzten bost banda izurtu eta paralelok armariaren punta zeharkatzen dute. Elementu

85. Agirre Mauleon, Juantxo. Udal armariari buruzko txostena. Aranzadi Zientzi Elkarte.

honek Oria ibaia errepresentatzen du eta mendiaren edo erliebe fisikoaren berde edo sinople koloreari gainjartzen zaio.

**Basagaingo herrixka:** Historiaren errepresentazioa, gizakiak denboran zehar Naturaren osagaiak transformatu eta etxekotzean osatutako kultura materiala. Burdin Aroko herrixka hau Basagain mendiaren tontorrean kokatzen da, lurralde guztiaren gainean nagusituz. Herriko historian orain artean ezagutu den herrixkarik zaharrena da. Oraindik burutzen ari diren indusketa arkeologikoak bi mila urte baino gehiagoko kastro edo gotortutako herrixka honen garrantzia azalerazten ari dira. Motibo ikonografikoak zera islatzen du: harriz eta egurrezko defentsa elementuz inguratutako harresi barnean egur eta landarez eratutako txabolak. Burdin Aroko herrixka baten silueta idealizatua agertzen da, landarezko teilatua duten hiru etxebizitzaren gaineko irudi eskematizatuaren bidez errepresentatua eta erremate horzdun batekin kanpotik itxia, aipatu garaian herrixka hauek babeserako erabili ohi zituzten hesiak imitatu nahirik. Herrixka urre edo hori kolorekoa da eta zilarrezko hondoari kontrajartzen zaio kromatismoz

**Kukua:** Herritarren errepresentazioa, anoetarrena alegia. Aitzineko atalean ikusi den bezala *Cuculus canorus* edo kukua ahozko literatura tradizionalak herritarrak izendatzeko jaso duen ezizena da. Armarrian kukua hegan irudikatzean denbora sinbolizatzen du, Anoetako geografia eta historia igaro duten belaunaldinen *tempus fugit* sinboloa. Kukua kolore sable edo beltzez marraztearen arrazoia zera da. Kuku arra eta emea koloreengatik bereizten dira, kuku emea marroixka eta kuku arra grisaxka izanik armarrian anoetarren sexu bazterketarik ez irudikatzeke kolore neutral bat aukeratuta. Ingurune fisiko honetan eta Historiaren iragate etengabea, herri edota komunitate proiektu honen alde jardun duten eta bizi diren pertsona eta auzoko belaunaldi ugari izan dira. Prozesu dinamikoa da, beti etorkizunari begira burutua, eta «kuku»aren irudiak guztiorren adierazgarria da, zeruertzerantz beti hegan egiten, eta hain zuzen izengoiti horrekin dira ezagunak anoetarrak.

Beraz hiru ideiak honela lotzen dira: *lurraldearen barneko natura eraldatzean osatzen da historia, herritarrek osatzen dutena*. Gauzak honela, herritarren artean ordu arteko armariaren eguneratze edo balizko armari berrien proposamenik ez zenez aurkeztu hurrengo fasea herri galdeketa antolatzea izan zen. Anoetan erroldatuta zeuden herritar guztiek parte har zezaketen galdeketa herriko armariari buruz ondoko bi aukera

zeuden: lehena, aurreko armarrria mantentzea eta, bigarrena, Anoetako Udalaren ekimenez Aranzadi Zientzi Elkarteak proposatua aukeratzea. Parte hartzerik handiena emakume eta helduena izan zen; eta, azkenik, bigarren proposamena aukeratu zen.

### **Epilogo: geure itzalaren bila**

Auzolan kulturalaren hutsegite/lorpenez hitz egiterakoan, bi plano berezitu behar dira: industrializazioak eraginda Anoetara etorri ziren herritar «berri» eta «gazte» haiena eta hauen ondorengoena. Honela, herriko eragileen artean antolatutako ekintzetan, antolatze lanetan zein jarraipenean bilakaera kualitatibo eta kuantitatiboa nabaria izan da. «Auzolan kulturala» era naturalean gauzatu da, eta hori kultur errota birarazteko energien metaketarengatik lortu da hein handi batean. Honela, adin, jatorri, zaletasun... ezberdineko giza taldeen arteko gerturatze eta herri identifikazio handiagoak lortu dira. Hau guztia, azterlan honetako azken kapitulukoa adibideetan ez ezik, herriko espazio ezberdinetan ere neurgarria da.

Esanguratsua da, adibidez, herriko festen aurretik antolatzen den koadrila egunak hiru urtetan lortu duen identifikazio maila. Herriko hogeit hamar koadrilatako 250 herritarrek antolatu, hainbat lan egin eta parte hartzen dute. Orain artean, parte hartzaileak hamasei eta hogeita hamar urte artekoak izan dira. Herrian adin talde honetako 355 herritar daude errolatuak, ekintza honetan parte hartzen dutenen proportzioa beraz %54koa da. Halere, kasu honetan adierazle numerikoa baino garrantzitsuagoa da elkarren arteko erlaziorik gabeko koadrila batzuen artean emandako hurbilpena. Batik bat guzti honek bultzatuta, 2004ko herriko jaietan 35 urtetik goragoko 40 herritarrek osatutako koadrila batek hartu zuen parte. Honela, jai hauetan adin taldeen eta partaidetza mugak handitu egin dira.

Bestetik, adierazgarria da anoetarrek herriko jaiekiko zuten pertzepzioaren aldaketa. Anoetako jaiak Korpus egunarekin antolatzen dira, beraz, egutegian ez dute egun finkorik; urtero egun ezberdinetan egokitzen dira. Honela, sarri, Tolosako San Joan edo Ibarrako gazte festetako datekin bat egiten dute, hala gertatzen denean, inguruko herrietako jende gutxiago hurbiltzen da herrira. Data kointzidentzia hau, duela urte batzuk, herriarentzat kalterako zelako iritzia zegoen zabaldua, hainbatek festa egunak aldatzea ere proposatu zuelarik, bazen beste urte garai batean gazte festak



antolatzea proposatu zuenik ere. Festek lehenean jarraitzen dute, herritar askoren ikuspuntua, ordea, erabat irauli da. Jaietako antolakuntzan zein parte hartzean inplikaziorik handiena duten eragile eta koadrilek, Anoetako jaiak aipatu datetan egokitzen direnean, «bertakoak bakarrik, hobe» dela deritzote. Azken batean, festen arrakasta baloratzeko parametroak neurri batean aldatu egin dira. Lehen gehiago baloratzen zen musika talde famatuaren presentzia, bertaratutako jende kopurua edo txosna eta tabernen diru irabaziak. Egun, ordea, geroz eta gehiago baloratzen da herritarren harremanen kohesioa, nahiz eta herriko eragileen diru iturria ia bakarra diren txosnetan diru irabaziak txikiagoak izan.

Fenomeno hau herriko jaietako programazioan ere agertzen da, festak geroz eta herrikoiagoak antolatzen baitira, kanpokoei baino gehiago bertakoei zuzenduak. Udalak jaiari begira diru inbertsio handia egiten du, aurrekontuko gastu arrunten %5 gutxi gorabehera. Talde edota elkarte bakoitzak bere tarteak du jaietan; honela, antolakuntzari dagokionean, zuzeneko zein zeharkako inplikazioa handia izaten da. Modu batera zein bestera, antolaketan edo inplikazio handiko parte hartzen, aurretik entseatu edo antolatu beharrekoetan alegia, 400 pertsona inguru aritzen dira.

### *Euskara integrazioaren zubi/desintegrazioaren malkar*

Aurreko ataleko kultur sormeneko adibideetan, jaietako dinamikan edo ondoren aztertuko diren faktoreen eraginez 70-80eko hamarkadetan, inguruko herrietatik batik bat etorri zirenen seme-alaben arteko harreman sare sendoa ikusi daiteke, nahiko kohesionatua dena. Kohesio hori izan da «auzolan kulturala» birarazten jarri duena, eta aipatu auzolan kultural hori izan da, aldi berean, harreman sareak zabaldu edo kohesionatu dituen. Hitz batean, berrelikadura bat eman da sortutako kultur espazio eta harreman sareen artean. Aipatu herritar «berri» eta «gazte» haien ondorengoak herrian integratzen lagundu duten beste hiru faktore nagusiak Anoetako Ikastola, Anoetako Gazte Asanblada eta herrian eratu diren zerbitzu eta kultur eskaintzak izan dira.

Anoetarrek, ikastola 1969an sortu zenetik 1992 urte arte, irakas-kuntzari dagokionez bi aukera zituzten: eskola publikoa eta Ikastola. Herritarrek eskolaren ordez Ikastola aukeratzen zuten, urte horretatik aurrera Ikastolaren aukera soilik dago Anoetan. Ikastola onarpen sozial handiko erakundea da herrian. Adierazgarriak dira ikastolan matrikula-

tutako herritarren kopuru altua (233) edota eskola zikloa hasten duten ikasle eta zentsuaren arteko erlazioa (2003an, %94,4). Irakaskuntzaz gain, oso esanguratsua da Ikastolak antolatzen dituen ekintzek duten onarpen soziala. Ikastola egunean dagoen parte hartzea (420 bazkaldar) edo kirol ekintza estraeskolarrerako parte hartzea (2002an, %66, eta ez ohiko kirol estraeskolarreran %87,3) kasu.

Erakunde esanguratsua izanik, haurrak herrian integratzeko giltzetako bat bilakatu da Ikastola. Bertan ikasi ez duten gazteak herriko harreman sareetatik kanpo geratzen baitira gehienetan. Anoetan apustu handi bat egin zen DBH Anoetan irakatsi zedin; orain, herritarrek hamasei urte arte herrian ikasteko aukera dute. Beraz, herritik kanpora ikastera joaten direnerako, lagun taldetan elkartuta daude, eta lagun talde hauek herriko harreman sareetan ongi txertatuak.

Anoetako Gazte Asanbladari (AGA) dagokionean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zikloa bukatu eta lanean hasi arteko gazteen elkar-gunea da nagusiki. Adin talde honetako gazteen kezka, ardua, jarduera eta ekimenen talde sortzailea, erabat autogestionarioa dena. Aipatu taldeko kideez gain, eurek antolatzen dituzten ekintzetan hogeita hamar urte inguru arteko herritarrek ere parte hartze handia dute. Zenbait ekimenetara helduagoek ere bertaratzeko joera dute. AGAk, nerabe eta gazteen harreman sareak sortzen lan handia egin du.

AGAk antolatzen dituen jarduerak erreferentzia handia dute herrian. Anoetako gartzetxean kontzertuak antolatzen direnean adibidez, herriko lagun koadrila ezberdinetako kideen presentzia handia izan ohi da, musikazale ez direnen presentzia adierazgarria da, jende asko koadrilen artean sortzen den giroa dela-eta joaten da. Esanguratsua da halaber, gartzetxeko «txirrisklas» fenomenoak. Txirrisklasa hainbat edari ezberdinen nahasketa da; (ia) inork probatu ere egiten ez duena; alabaina, urtean bizpahiru aldiz, data esanguratsuetan, denen artean prestatu eta edaten da. Bere arrakasta herritarren artean edaria konpartitzean sortzen den giroan datza. Honetaz aparte, bigarren atalean aipatutako ekintzak ere antolatzen ditu AGAk.

Herritarren integrazioari dagokionean, herriko zerbitzu eta kultur eskaintzek ere garrantzi handia izan dute. Adibidez, Ikastolan ikasten duten 233 anoetarretatik 88 musika eskolan daude matrikulatuak. 1987an «herria janzteko» abiarazi zen estrategiak fruituak eman ditu. Oso herritar gutxi joaten dira Anoetatik kanpora eskolaz kanpoko ekin-

tzetara, eta joaten direnak oso ekintza konkretu edo maila altukoetara joaten dira. Oro har, astean zehar bertako gazteak bertan geratzen dira, onarpen handia dute bertako zerbitzu eta eskaintzek. Onarpen maila hori fruituak ematen ari da, adibidez 2003ko herriko jaietako programan, batean izan ezik talde guztietan gutxienez anoetar bat zegoen. Edo eskolez urtean zehar plazarazten dituzten ekimenak ugariak dira. Udal eskolez gain, gaztetxoenen aisiari begira ere hainbat jarduera edo herritar guztiei zuzendutako hainbat ikastaro antolatu ohi dira urtero.

Aurreko adierazleak kontuan hartuta, herrian jaiotako gazteen artean herriarekiko identifikazio handia eta harreman sare indartsua dela esan daiteke. Gazte hauek izan dira beren gurasoak herriarekin identifikatzen eta elkarren arteko harreman sare berrituak sortarazi dituztenak. Bertan jaiotako gazteak harreman sare kohesionatuan hezteak gurasoak bertakotzea eragin du. Honela industrializazioak bultzatuta hona etorritako herritar «berri» eta «gazte» haien eta bertako harreman sare berrituen arteko zubi-lanak euren ondorengoek egin dituzte.

Alabaina, herrian bada gizarte segmentu bat, gutxiengoa izanik ere, ondoko urteetan aztertu eta hauekin lan egin behar dena. Herritar hauek, orokorrean, herritik kanpora matrikulatu dituzte euren haurrak, eta haur horiek ez dira bertan integratu. Herritar hauek, orokorrean, herriko dinamiketan ez dute parte hartzen eta hainbatek kultur ekitaldi esanguratsu bat ospatzean eguneroko ohiturak ere aldatu egin ohi dituzte (poteoa, erosketak lehenago egin...). Beraien hitzetan, ez dira kultur espazio horien subjektu sentitzen eta orohar ez dute euskaraz hitz egiten. Honi gehitu behar zaion beste errealitate bat azken urte hauetan ugaritzen ari den inmigrazioarena da, oraindik herritar hauen kopurua txikia izanik ere. Etorkizunari begira kontuan hartu beharko da hauen integrazioa ere.

Laburbilduz, Anoetan herri identifikazio eta harreman sareen integrazio saiakeran, euskarak egin ditu zubi-lanak. Bigarren atalean aipatu dugun bezala, hizkuntza kodigo huts bat baino gehiago komunitatearen ikurra da, ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi transmititu den memoria kolektiboaren sinboloa. Arturo Campion handiaren hitzetan «hizkuntza herri baten arima etnikoaren ispilua da». Honela, «auzolan kulturalaren» abiapuntu izan da euskararen gizarte erabileraren normalizazioa.

Azken urteetan, euskararen ezagutza asko ugaritu da Anoetan, 1981etik 1996era bitartean %15.4; baina soziolinguistikoki adierazgarriena zera da, ia euskaldunen multzoa lehenean dela. Euskaldunen

multzoa erdaldunen multzotik edanez hazi dela; beraz, joerak jarraipenik izan dezake. Bigarren atalean, SEI elkartearen ondorioetan ondorioztatzen denez, herriko euskaldunen trinkotasuna zein leialtasuna altua da. Hau da, alde batetik, herriko euskaldunak trinkoturik bizi dira, gehienbat beraien artean harremantzen direlako. Honela, egunerokoan euskaldunek euskaldunekin hitz egiten dute erdaldunekin baino gehiago. Bestetik, herriko euskaldunen leialtasuna oso altua da eta, ondorioz, euskaldunen arteko elkarriketak ia beti euskaraz burutzen dira. Beraz hizkuntza komunitate nahiko sendo bat dago eratua. Hizkuntza komunitate horrek 70 eta 80eko hamarkadetan herrira etorri ziren barne eta kanpo inmigratzaile horien seme alaba gehienek euskara ikastea bultzatu du. Hainbat gurasok euskaraz ikasi ez badute ere, beren ondorengoek euskara ikastea bultzatu dute. Honela, orokorrean, guraso hauek eta guraso euskaldunak ongi integratu dira herrian. Beraz, azken urteetan euskararen normalizazioan buruturiko pauso estrategikoez (udal ordenantzak, Udalaren erabilera plana, udalerriri begirako plan estrategikoa) ezagutza ugaztzen lagundu badute ere, euskaren komunitatetik urrun daudenak gerturatzen badago oraindik zereginik. Izan ere, gehienentzat euskara herriko harreman sarean integrazio faktore izan bada ere, beste sektore bat bada desintegraztailetzat jotzen duena.

Halere, orokorrean, faktore guzti hauek euskararen eta euskaltasunaren aldeko joera nagusiagoa bilakatu dute: alde batetik *euskaldun* sentitzea hazten doa gazteen artean; *euskaraz hitz egitea euskalduntzat* hartzeko beharrezko baldintza gisa areagotzen ari da gazteen artean eta, era berean, gazteen artean ari da gehienbat euskaldunen kopurua gehitzen. Honek guztiak zera iradokitzen digu, herriko harreman sozialetan «euskararekiko (kasu honetan euskararen proportzio eta ezagutza mailarekiko) inplikazioaren bitartekotzat duen garrantzia identifikazio etnosozialaren identifikazioan, orokorrean alegia, bai etnolinguistikoa, bai etnokulturalean».<sup>86</sup>

### *Itzalaren birbilatze etengabea*

Gure esaera zahar batek dioen bezala, gizonik apalenak ere itzala du, eta itzal nagusiagoen artean islatzen den gure identitateari aplikatu

---

86 Azurmendi, María José: «Hizkuntza eta identitate etnosoziala Euskal Herrian», in *Hizkuntza eta talde-nortasuna*, 1998, UPV/EHU.

geniezaioke. Euskal idazleek hainbatetan aipatu izan duten Chamisso<sup>87</sup> idazle erromantikoarentzat, herri batentzat itzala tradizioa da, herri-kultura horretan edaten duenaren sena. «Zuk, laguna gizartean bizi nahi baduzu, ikasi estimatzen itzala» zioen, itzala galtzea identitaterik gabe gelditzea zen beretzat.

Itzala norberaren arimaren metafora bada, herri batek ere, itzala galtzen duenean, arima galtzen du. Ahozko tradizioak ere jaso du «horrek itzalik ere ez du». Gauzak honela, gurea, jaso duguna gordetzeko esperientzia izan da, era naturalean gorde ere, hainbat itzal luzeren aurrean.

Gaurko estatuak ez dira jada XIX. mendeko haiek bezalakoak. Lausotu dituzte mugak, gero eta lotuagoak daude politikoki, ez dute autonomia ekonomikorik; zientziak martxa guztiz berea eta globalizatu darama aurrera, gero eta lausotuago ditugu identitate markak. Eta hor, eszenatoki horren erdi-erdian, jokutzen hasita dago dena uniformatzeko joera eta identitateen arteko lehia. Aitzitik, gure kulturak, izuak eta pozak eta sentimendu guztiak agertzeko bere modu propioarekin unibertsaltasuna aberasten du eta osatzen, eta, aldi berean, unibertsaltasunak mende eta milurte berri honetan duen arriskurik handiena, uniformizazioa, partikularitasunarekin aurre egiten.

Naturaren dibertsitateak aurpegi asko ditu. Gizakiak ere munduan egoteko, bizitzan egoteko forma asko garatu ditu. Bizitzaren aurrean gizakiaren erantzuna, zorionez, ez da bakarra, anitza baizik. Erantzun desberdinak sortzen dira, munduan egoteko modu desberdinak, hori da gizateriaren aberastasuna, kolore ezberdinetako itzal ezberdinez osatutakoa. Bizitzan egoteko erantzun desberdin hauek hizkuntzetan, kulturetan kristalizatu dira. Hizkuntzak, kulturak, biziaren formak dira, gure arbasoen erantzunen gordailuak, gure sukaldeak, gure ekosistema kulturalak. Zertarako? Hortik aurrera, itzal horietatik aurrera guk ere sortu, aldatu eta luza ditzagun.

Gauzak honela, «auzolan kulturalarekin» herritarrek herrian beren buruak definitzeko helduleku sinboliko eta identitarioak sortzeko saiakuntza egin da, esperientzia kultural eta historiko batean kokatzeko eraikin sinbolikoak alegia. Herritarren identifikazio maila eta harreman

---

87 Adalbert von Chamisso jatorri frantziarreko poeta alemaniarra zen. Bere *La maravillosa historia de Peter Schlemihl* lanean, itzala saldu zuen gizonaren historia kontatzen da. Bere autobiografia bezala interpretatu izan da, izan ere berak ez baitzuen nazionalitate definiturik.

sareak hein handi batean lortu dira, nago herriko eragile ezberdinen «auzolan kulturalaren» itzalak isla izan duela

Auzolan kulturalak, «kultur errota» birarazi dezakeen ur korrante xumearekin zerikusirik izan badezake, elementu bakoitza sistema batean integratzen delako da, osagai bakoitzak beste askoren oihartzuna dakarkigulako, erlazio bakoitza beste erlazio baten metafora delako, amaierarik gabeko biraketa batean.

Eta biraketa etengabe horrek eragindako zorabioan, «auzolan kulturalak» hori du helburu: elementuen birkokatze etengabea, egokitze berrien saio amaierarik gabea «lehen zehatza zenak ez baitu gaur bere tokia aurkitzen» Claudio Rodriguez poetaren hitzekin esateko. Eta lehen zehatza zenak bere tokia aurkitu uste duenean ere, berehala uzten dio zehatz izateari eta kokatze berrien bila abiatu beharko dugu ostera.

Saiakuntza ezberdinak egiten segitu beharra dago Paulo Freireren «somos andando» esaldia ehotzen. Izan ere, norbere itzalaren ezagutzak ematen dio gizakiari izatearen funtsa. Kulturaren eta jakintzaren bidetik egituratzen da norberearen burua. Eta nortasunaren ezaugarri kolektiboen elkartasunezko deiak itxuratu ahal du bila gabiltzan itzala.